

AIKOR!

txorierriko aldizkaria



Aldizkaria sarean dugu!



Floristería
Liliak
Loradenda



**2007ko zeuon
ezkontzarako eskaintza:**

Lumaz idatzitako artisau-gonbidapenak

Gonbidatuentzako opari eksklusiboak

***Ezkontzarako lora sortak:
klasikoak—
azken joerak—***

***Ezkontzako ekitaldiaren lora apainketa:
kotxea, eliza, epaitegia...***

Jatetxeetako apainketa

Zaldi-kalesa alokatzea

Erdiko kalea, 2 – 48016 DERIO

Telefona: 94 454 12 23

Mobila: 657 79 75 93

www.liliak.net

BONOA
Ezkontzarako
sorpresa-
oparia



Argitaratzailea: TOTOAN, Txorierriko Euskara Elkarteen Federazioa
(Lagatzu, Zorritzeta, Arrekikili, Tximintx)
Tf.: 94 452 34 47
www.aikor.com
e-posta: aikortxori@yahoo.es

Zuzendaria: Xabier Goienetxe

Erredakzio burua: Itxaso Marina

Erredakzio taldea: Fernando Larrondo, Jose Angel Mentxaka, Maite Lekerika, Gaizka Eguskiza, Amagoia Guezuraga, Belen Gana, Pospolin eta Aritz ta Nagel

Kolaboratzaileak: Toti Mtz. de Lezea, Jagoba Zallo, Gotzon Barandiaran, Iñaki Bilbao, Asier Oruetxebarria, Juan Luis Goikoetxea, Juntxu Bilbao eta Laura Martinez

Zuzentzaileak: Alberto Mtz. de la Cuadra, Iñaki Astorkiza eta Jagoba Zallo

Publizitatea: Arantz Atxutegi

Banaketa: Aikor!

Maketatzailea: Gaizka Eguskiza

Inprimategia: Gertu

Ale kopurua: 5.000

Lege gordailua: BI 137-02 ISSN 1578-9322

AIKOR! aldizkariak ez dau bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen edota eritxien erantzukizunik.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikaren Sailburuordetza



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia



diruz lagundutako aldizkaria

11 Rafa Rueda



30 Derioko Lagun Onak Txokoa



22 Aikor! aldizkariaren jaia



12 Korrika 15



28 Iñaki Berazategi

AURKIBIDEA

4Eritxia 5Laburrak eta albisteak

11Gurean izan da... Rafa Rueda 12Korrika 15 13Gaztea eta... Borja Puente eta Alberto Marcos, Zamudioko pilotariak 14Publierrepotajea 22**AIKOR!** aldizkariaren 5. urteurrenaren jaia 28Iñaki Berazategi, kazetaria 30Derioko Lagun Onak txokoa 32Osasuna 33Teknologia 34Musika... Katamalo taldea 35Sukaldaritza 36Denborapasa 37Agenda

ATARRABI

Errementari, 11 - 48150 Sondika
Tfnos.: 944 531 928

Salon de Belleza
Auxi

Pelajería Estética Designa
Manicura - Pedicura, etc.
Teléfono: 94 454 53 44
C/DO

Obreros, 1. planta
(Guztakoan bankaren ondoan)
Teléfono: 94 421 03 01
SONDIKA

FONTANERIA DOBARAN

Berriztatze - lanak:

- Etxebizitzak
- Suetak
- Bainugelak

94 453 3860
658 75 9084

Mitxina, 4 - 48150 SONDIKA

Gu geure indarra gara



TOTI MTZ. DE LEZEA
(Idazlea)

Gogoratzen dut gure aita, txikiak ginenean, Aita Gurea erreztatzen, atzerritarren batek euskaraz zer-bait esateko eskatzen zionean. Gogoratzen dut bertsolarien txapelketetara joaten ginenean. "Aita, zergatik gaude hemen, ez zuk ez nik ez badugu ezer ulertzen?" galdetzen nion aitari. "Euskarari laguntzeko, Aberria egiteko" zen bere erantzuna. Gogoratzen dut euskaraz entzuteko euskal koruen kontzertuetara joaten ginela; Labegerieren diskoak Sinatraren tapen barruan ekartzen genituela muga pasatzera; lehen aldiz Benito Lertxundiren *Gu gazteok gaur gabiltza* entzun nuenean; gure seme-alabak euskaraz hitz egiten hasi zirenean; gure ilobak euskaraz esandako lehen hitzak. Badira oroipen zahar eta berriak.

Duela gutxi pertsona nafar baten gutun bat jaso nuen. Pertsona horrek nire nobelen kontrazalean Euskal Herria esapidea erabiltzea leporatzen zidan, eta galdetzen zidan: "Baina ba al zen Euskal Herririk XI. mendean? Nahiko nuke jakin ze dokumentutan ageri den esapide hori."

Herrien Historia gerrako gertaeretan, erregeetan, konkistatzaileetan, soldaduetan, garaipen eta porrotetan, inbasio eta konkistetan oinarriturik kontatzen da batez ere. Ehunka herri izan dira Gizadiaren Historian, iraganean desagertu diren herriak, eta horietako askok ez dute munduan izan duten presentziaren batere lekukotasunik utzi. Beste askok bai, utzi dituzte beren izatearen frogak, baina non daude horiek guztiak orain? Zer gertatu

zaio haien botere izugarriari? Geure Euskal Herriak mendeetan eta mendeetan iraun du, bere inguruko herriak desagertzen ziren artean. Ez da beharrezko esapide hori inongo dokumentutan agertzea, gutako bakoitza herri horren existentziaren lekuko bizia baita.

Denbora eta indarrak alferrik galtzen dira huskeriak eztabaidatzen, nor den nor baino gehiago, edo nork egiten dituen gauzak hobeto eztabaidatzen. Ezin dugu beste herrien errespetua eskatu geure buruak errespetatzeko gauza ez bagara, geure buruari begira geratzen bagara eta besteen lanari oztopoak jartzen badizkio. Herri txikia gara, neurritz eta biztanleen kopuruaz, eta gu guztiok eta gutako

bakoitza gara beharrezko. Gure lana, edozein delarik ere, beharrezkoa da. Kultura arma ahaltsua da, bakarra herri baten nortasun bereziari eta memoriari eusteko. Nahitaezkoa da, beraz, denok lan egitea, kultura horri eutsi nahi badiogu eta aberastu nahi badugu.

Zuen lanagatik, zorionak **AIKOR!**-en egileak eta laguntzaileak.

"Kultura arma ahaltsua da, bakarra herri baten nortasun bereziari eta memoriari eusteko"

Salda dago

Aspaldiko partez ia-ia taberna guztietan ikusten dogu "Salda dago" txarteltxoa, eta batez be orain, neguan-edo gagozala. Danean zabaldu da txarteltxo hori, eta euskaldun askorentzat gauza arrunta bihurtu da.

"Salda dago", zer dago? galdereari erantzungo baleutsa moduan. Baina ez dogu galdera hori egin, eta emoten deusku hori baino ez dagoala, eskatzeko moduko besterik ez dagoala taberna horretan. Badakigu hori ez dana holan, baina berez horixe litzateke mezua.

Han-hor-hemen ikusi izan ditugu inoiz edo behin beste moduren batera jarri behar dala hori, eta "Salda bada", edo "salda ere bada", edo "salda ere bada", eta abar. Hainbeste eta hainbeste bider esan eta idatzi, baina hor jarraitzen dau "salda dago" txarteltxo madarikatuak leku guztietan.

Ganera, Bizkaian arazoa larriagotu egiten da, "salda"ren azken "-a" hori organikoa dalako, eta Bizkaian beti gorde izan danez holakoetan, "saldea" beharko leuke izan guretzat. Oraindik arrotzago egiten jaku, beraz, "salda



JAGOBA ZALLO
(Itzultzaile-interpretea)

dago" esatemodua.

Zein ete da, ba, hori holan idazteko arrazoa? Ba argi dago, gaztelerean dago arrazoa, gaztelerez "Hay caldo" idaztea guztiz normala da-ta. Baina euskeraz ez, eta gaztelerez holan idazteak ez dau balio euskeraz bardin idazteko. Berezko modu naturalen bat erabili behar dogu, esate baterako "salda beroa", edo "salda bero-beroa".

Ez ete da, ba, naturalagoa eta erakargarriagoa euskaldunentzat horretara jarrita?

HARAGIETEGIA ALBERTO
Txorierri etorbidea. 5
9452 452 08 25
48016 ZAMUDIO (Vizcaya)

AMARU ZAMUDIO
CALLE - BAR
9452 452 08 25
94 52 02 26

COOKING - PINTING - PAINTER KONGRAUKE - ESCUDO MELA - ARRU KARI A

ESTILISTA EVA ARDINES
NOSKA-MUTULEN ITXASPEITXOITIA

AmAr

Antzaria - Oletza - Antzaria - Antzaria
Lorenzola - Antzaria 140500

Urtze Plaza, 1 - Dehesa 48170 Zamudio
Telefonoa: 94 452 04 19 (Aurreko izendatza)

Zeure eritxia agertu gura badozu, gutuneri atal hau zabalik daukazu. Ahalik eta eritzi gehienek lekua euki dagien, ez da komeni makinazko 15 lerro baino luzeago idazterik gutunotan. Izena, telefonoa, helbidea eta nortasun agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezkerro, Aikori!-ek bere esku dauka horretarako eskubidea. Zure eritxia aginduteko helbidea: Totoan, Aresti kalea 2, 48170, Zamudio edo aikortxori@yahoo.es

Txoriak etxe faltan Txorierrin

Noiz izan zen Txorierrin eratzen duten mendietara egin zenuen azken txangoa? Ibili al zara inoiz bizikletan Larrabetzutik hasi eta Zamudioko Berreaga mendian bukatzen den mendilerrotik? Edota Derio eta Mungia arteko Artebakarra auzotik Lañamendira?

Beharbada zuk ere konturatu zara toki hauetan izaten ari diren aldaketek, gogoeta egiten hasteko modukoez.

Hemengo basoa desagertzen hasi da, arteak, haritzak, lizarrak, gaztainondoak etab. gero eta urriagoak dira. Kaliforniako pinu eta eukaliptoak ez ditugu bisitari etorri berriak, baina martxa honetan bertokoen lekua eurek hartuko dute guztiz.

Euskal Herriko baso propioa hiltzorian dago Bizkaiko hainbat eremutan; Txorierrin lurperatzen hasi gara jada.

Basoa lurperatzea ez da metafora, jarraitu ezazue Zamudioko Teknologia Parkea gurutzatzen duen bidegorria, bere amaieran hasten den bidetik segi eta hobeto ulertuko nauzue. Udan, bost minutuko tartean 8 kamioi erraldoi ikusi ditut pistatik gora kanpotik ekarritako lurrekin erreka-

dun gune eder bat estaltzera. Bilboko ibai ertzeko lur kutsatuak, beste inork onartu ez dituenak, ere ekarri dituzte.

Badut proposatzeko beste ibilalditxo bat. Igo zaitezte Artebakarra auzoko Klara-tarren komentu ingurura. Mendi bat burusoil uztea zer den ondo ulertuko duzue. Artebakarra bazen, Artebakoa da jada.

Nahiago ditut pinu eta eukaliptoek kolore eta usainak lur marroi biluzia ikustea baino. Katagorri, txori, intsektu eta beste hainbeste bizidun horretan ados daude, baina haien artean askoz ere mingarriagoa da induskailu eta kamioiek egiten ari diren kaltea. Bertokoari ere haurtzaroko belardia, basoa edo erreka, errepide, etxe edo trenbide batez ordezkatzek min eta tristura handia sortzen dio. Txikitari bere gerizpean babesten ginen zuhaitza moztzen ikustea mingarria da oso.

Noski, etxe berri bat eraiki nahi badugu lurzorua behar da, baina zentzuz jokatzeko ezinbestekoa dugu. Herrian hogeitabizitza zahar baditugu beste berrogeita hamar berri eraiki baino lehen erabilgarri utzi



ditzagun lehenengoak.

Ezin diogu lurrari etengabe eskatu eta ordaintan ezer ez eman. Hornitzaile esku-zabala da, bai, baina muga batera arte.

Martin Mc Gragh

BAR RAFI
ESPEZIALITATEA: PINTXOAK
Rafael García Tejero
Olar Kalea, 5 1º 94 406 00 00
48170 ZAMUDIO (Bizkaia) Mòbil: 607 406 613

PATXI COOP. T.L.
Concesionario Zamudio
Mahou
Carlsberg
Tel: 94 452 25 87
670 87 37 14
Ugaldesqueen Industriak I
48170 ZAMUDIO - Bizkaia

Bocateria
3 otarteko
Pizzeria
2x1
ETXEE ETXEN ZERBITZUA IA TXORIERRI OSOAN
ZAMUDIO TEL: 94 452 11 42

GAMINIZ
RESTAURANTE
AITOR ELIZEGI
Zamudioko parke teknologikoa
Baserria 212
48170 ZAMUDIO BIZKAIA
Telf. 94 431 70 25
e-mail: gaminiz@euskalnet.net
www.gaminiz.salseando21.com

LIBRERIA SONDIKA
LIBURUDENDA
ARTE EDIERRAK ESKULANAK, E.A.
JESUS MANUEL LANDA ANTOLIN
Fotokopiak, knademaketa, plustifikatuak,
prentsa, aldizkariak, liburua,
papergintza eta eskulak
Mikel Zarate, 2 - Tel. / Fax: 94 453 16 77
48190 SONDIKA (Bizkaia)

ASESORÍA
Luis Fernando Aguirre, s.l.
Mateo Bidaurrazaga, 1
Tfno: 94 453 33 28 - Fax 94 471 06 28
48150 SONDIKA (Bizkaia)

Seme-alaba elebidunak dituzten gurasoentzako hitzaldiak



Martxoan seme-alaba elebidunak dituzten guraso erdaldunei zuzendutako hitzaldiziklo bat hasiko da. Lau hitzaldi antolatu dira, eta horiek honelako galderei erantzuna ematea dute helburu: Alabak euskaraz egiten du eta ez diot ulertzen, zer egin?; Ez ditut semearen etxerako lanak ulertzen, nola lagunduko diot?; Zergatik da inportantea alabak euskara erabiltzea?... Lehenengo hitzaldia martxoaren 15ean, 17:15ean, izango da Sondikako Kultur Etxean. Hitzaldia bertako Gorondagane ikastetxeko gurasoen elkarteak antolatu du eta bertan Julio Ibarra kazetariak eta Iñaki Eizmendi gizarte-hezitzaile eta elebitasunean adituak parte hartuko dute. Beste hiru hitzaldiak Txorierriko Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak antolatu ditu eta hurrengo egunetan egingo dira: Derio:

martxoaren 27an, 18:00etan, Larrabarri baserrian; Loiu: martxoaren 29an, 18:00etan, Kultur Etxean eta Zamudio: maiatzaren 8an, 18:00etan, Dorretxean.

Beste alde batetik, guraso euskaldunen-tzako hitzaldi bi ere antolatu dira. Bata apirilaren 26an, 18:00etan, egingo dute Lezamako liburutegian, eta bestea maiatzaren 10ean, 18:00etan, Larrabetzuko Kultur Etxean. Hitzaldi horietan hainbat gai landuko dira; seme-alabek kalean edo etxean gaztelaniaz eginez gero, zer egin?, esate baterako.

Hitzaldiak baino egun batzuk lehenago, Euskara Zerbitzuak *Guía práctica para padres y madres de niños y niñas bilingües* liburuxka banatuko du eskola publiko guztietan, hitzaldietarako gonbidapenarekin batera. Orotara, 1.200 ale banatuko dira.

Estatuko ikerketa-zentro biomedikorik aurreratuena inauguratu dute Teknologia-parkean

Otsailaren 8an CIC bioGUNE Ikerkuntza Kooperatibo Zentroko Biologia Estrukural Unitatea inauguratu zuten Bizkaiko Teknologia-parkean, Derion hain zuzen ere. Hori ikerketa-zentro biomedikorik aurreratuena da Estatu mailan, izan ere bere ekipamenduan mikroskopio elektronikoak, erresonantzia magnetiko nuklearra eta X izpien difrakzioa sartu dira. Unitate berrian molekula mailako ikerkuntzak eta farmako berriak garatuko dituzte, minbiziari eta hainbat gaixotasunei aurre egiteko.

Lezama Bizirik elkarteak bazkaria eta mahai ingurua egingo ditu martxoan

Lezama Bizirik koordinakundeak ekitaldi bi antolatu ditu hurrengo hilean: elkarte bazkideen batzar-bazkaria eta "Hirigintza planak eta etxebizitza, Lezaman" hitzaldimahai ingurua.

Batzar-bazkaria martxoaren 3an, 13:00etan, izango da Goititortzako txokoan. Bertan hurrengo gaiak aztertuko dituzte: pasa den urteko ekintzak, Lezamako gaur egungo egoera, LPP eta arau subsidiarioen tramiak amaitu ostean eta datozen hilabeteetako plangintza. Horrezaz gainera, indabajana izango dute.

Beste alde batetik, mahai ingurua martxoaren 23an, 19:30ean, egingo dute Lezamako Kultur Aretoan. Mahai inguruan Eusko Jaurlaritzak, Lezamako Udalak eta Eguzki eta Elkartzen elkarteek hartuko dute parte. Halaber, etxebizitza gaiaren gaineko kaleko ekimena egingo dute martxoaren 24an.

**EZKONTZAK
BATAIOAK
BANKETEA
JAUNARTZEA**

Arteaga auzoa, 119
Tfnua.: 94 452 11 58
ZAMUDIO

Mila gurtiak - Taldetxoak - Ondutegi mugatuak

Horikostre kalca, 7
48195 Larrabetzu
615 707 381

San Martin, 1
48170 ZAMUDIO
Tfn. 94 454 38 94

Ondutegi: Gatzak 21ak
Asistentzia osasunak

Eguneko Menua
Karta (ecceceba)
Barruak

LARRABETZU
94455 81 97
**LOROÑO BEHEKOA
(BIZKAIA)**

Ongi etorria eman diote "Pika"ri

Otsailaren 17an, zapatuz, hainbat lagun eta senide batu ziren Zamudioko Herriko Plazan, Arkaitz Hormaetxe "Pika"ri ongi etorria emateko. Amnistiaren Aldeko Mugimendua, gazte mugimendua eta ezker abertzaleko ordezkariak ere parte hartu zuten ekitaldian. Ostean, triki-kalejira eta bazkaria egin zituzten. Bazkarian 170 bat lagun elkartu ziren. "Pika", urtarilaren 29an irten zen Aranjuezeko espetetik, 12.000 euroko bermea ordainduta.



Loiuko Udalak 485 kg elikagai agindu du Saharara

Urtarrilaren 22tik 26 bitartean Saharara bidaltzeko janaria batu da Loiun, bertako Udalak antolatuta. Kultura Arlotik aipatu digutenez, herritarren erantzuna aurreko urteetakoa baino askoz hobea izan da, aurtten 485 kg elikagai batzea lortu dute-eta: 143 kg dilista, 135 kg azukre, 29 kg atun eta 178 kg konpresa. Horrezaz gainera, nugu-

si-oihalak eta enpresa batek emandako arropa ere agindu dituzte.

Loiu 1999. urtean senidetu zen Bucraa herriarekin, eta harrezkero, tinko eutsi diote errefuxiatu sahararrekin hartutako konpromisoari. Horrela, Saharako hainbat proiektutara 9.000 € bideratzen dute urtero, Euskal Fondo GKeren bitartez. Era berean, *Oporrak* bakean kanpainen parte hartu eta Euskal Herrira uda pasatzera datozen umeak herriko frontoian hartzen dituzte, hareek destinoko herrira joan aurretik.

Beste alde batetik, udal ordezkari bik errefuxiatuen kanpamentuak bisitatuko dituzte Aste Santuan. Hori urtero egiten duten bidaia da, eta bertakoen egoera eza-gutzeaz gainera, laguntza humanitarioa eramatea du helburu. Ordezkariok medikamentuak eramango dituzte Aainuneko probintzian dagoen ospitalerako, eta eskola-materiala Bucraako eskolarako.



2007-2010eko EBPN-k berritasunak dakartza

Otsailaren 19an Txorierriko 2007-2010eko Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia (EBPN) onartu zuten.

Testuan hainbat puntu berri sartu dira arlo ezberdinetan. EBPN-k enpresa mailan euskara planak lantzea du helbururik nagusienetarikoa, eta, horretarako, laguntza teknikoa eskainiko zaie bertoko enpresei. Euskararen presentzia Mankomunitateko udaletxeetan eta zerbitzuetan indartzea ere hartu da erronkatzat, eta martxoaren 1etik aurrera trebatzaile bat ibiliko da lanean administrazio eta teknologia arloan, udal guztietako langileek lana euskaraz egin ahal dezaten.

Horrezaz gainera, guraso erdaldunei zuzendutako hitzaldiak antolatuko dira, eta Berbalagun proiektuak bultzatuko dira gaur egun halakorik ez dagoen udalerrietan. Azkenik, lan poltsa osatuko da, zeinetan umezaintzaile, kirol eta aisialdiko begirale, aurkezle eta klase partikularrak emateko jende euskalduna hartuko baitira. Zerbitzu hori aspalditik eskaintzen du Mankomunitateak, baina aurtten lehenengo aldiz sartu da EBPN-aren barruan.

1+1=bi kanpaina jarri dute abian

Txorierriko Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak 1+1=bi kanpaina martxan jarri du. Izan ere, otsailaren 26tik martxoaren 9ra bitartean aurrematrikulazioa izango da ikastetxeetan, eta kanpaina horrek, gurasoek seme-alabak D ereduaren matrikulatzea du helburu.

Kanpaina 2 eta 3 urteko umetxoek gurasoei zuzenduta dago, eta Txorierriin 485 haurren gurasoei bidali zaie informazio-koadernotxo bana. Bertan Euskal Hezkuntza Sistema eta D ereduaren gaineko argibideak ematen dira.

cianoplan s.a.

Elkarte Teknologikoa 105 z/b
48170 Zamudio
Telefonoa: 94 431 71 37
<http://www.cianoplan.es>

global printers

- Inprimatze eta plano kopiak.
- Kartelak kolorez eta z/b.
- Digitalizazio eta bektorizazio, automatikoa eta lagundua.
- Fotokopiak kolorez eta z/b.
- Era desberdinetako koadernaketak.
- Plastifikazioak.
- Fax zerbitzua.

Gantx
ONHETAKOAK - ONDASUNAK

Gernikako Arbola Etorbidea, 2
(aurrerak Goiko Kuletik)
Tfnua.: 94 454 20 13
48160 DERIO (Bizkai)

TXORIERRI
Inmobiliaria

ZUBIRGANDIK GHEI UEN DORZEN INMOBILIARIA
ABHEKULARITZA - TASAZIOA
ALOKATZETAK - ESKUALDATZETAK
SALEROSKETAK
SOLUGURU BILGAIUEN AGENTZIA

Beto Ajeria, 2 SONTREA - TEXELA
Tel./Fax.: 99 011 1292 - 99 011 1811
E-mail: txori@txoriinmobiliaria.net

yedra
floristas

Mikel Zarate, 2 - 48150 Sondika - Bizkai
telefonoa: 94 453 14 57 - yedraflora@hotmail.com

Mozorroak, nagusi Txorierrin



Otsailean Inauteriak izan dira Txorierrin. Bertako udalerriak mozorroz etra kolorez bete dira. Inauteriek hurrengo argazki hauek utzi dizkigute.



TORREKO TXAKOLINA



1883-TIK TXAKOLINGILEAK

TORRE BASERRIA

Aretxalde 80208

48196 LEZAMA

Bizkaia

José Antonio Dañobeitia ☎ 94 473 15 34
Pedro Maria Dañobeitia ☎ 94 676 05 20
Bodega ☎ 94 455 62 39

Club Hípico Aretxalde

Pony club - Zaldiak ikasteko
Aisialdirako landak - Apoiatzen zerbitzua
Salto - Txangoak - Animalaren heziketa

Telefonoa:
IBON - 659 90 75 88



URAS

Estetika eta masajea

Aita Pabli Ugaldes, 14 beheko
Tel.: 94 455 72 01 - 48195 LARRABETZU (Bizkaia)

GOIKO TABERNA

Bar-Restaurante
Emiliano y Juanjo

- Menú Diario y carta
- Camareros y bodega
- Amplias comedores

8.ª Garieltoa, 1 • Tfno. y Fax 94 455 41 10 • 48196 LEZAMA - Bizkaia

FMC Foret, S.A.

Zamudioko Fabrika
San Martín sarrak, 130
Zamudio (Bizkaia)
Tel.: (94) 452 50 50
Faxa: (94) 452 11 45



Oguiza Hartz Klinika



korpeko eta ingurumeneko
Oguiza Hartz Klinika
Larrazteko eta korpeko korpeko
Prozedura bakoitzeko erabakia
Hortz bakoitzeko erabakia
Oguiza Hartz Klinika
Oguiza Hartz Klinika
Oguiza Hartz Klinika
Oguiza Hartz Klinika

Argutegi korpeko, 1 • 48196 LARRABETZU • Telefonoa: 94 455 68 90

ZURE BIDAIA-AGENTZIA

VIAJES
BIDAIAK

NUEVOS
HORIZONTES

TALLER 8, LNJ 6, 48170 ZAMUDIO BIZKAIA

T: 94 406 04 53 / FAX: 94 602 21 26 zamudio@viajesnuevos horizontes.net

Zamudioko liburutegiak 6 urtetik 8 urtera bitarteko umeei zuzendutako irakurketa, idazkera eta ilustrazio tailerrak antolatatu ditu. Tailerrok martxoaren 17an, apirilaren 21ean eta maiatzaren 19an egingo dira 11:00etatik 12:00etara. Bertan parte hartu nahi dutenek liburutegian eman dezakete jena.

Albataritzoa

HENAR ORTUONDO
TEMAI ARRIA

Mobil Herreria Nizur
Telefono: 94-494 28 27
40100 BERRIO (Navarra)

DERIO

LAKRATIAINAK / Lakratiak
Telefono: 94-60 04 44 - Abuztuak: 1975

HORTZ - KLINIKA

Jasone Azurmendi Garai

Pekoaen Plaza, 1 - 1º A
DERIO Telefonoa: 944 543 200

HOTELA
JATETXEA
ENTEE + EACOX
Olinar Cnigogwainio
Arbores 2222, 61
48170 ZAMUDIO - (BUZKAIA)
Telefono 94 452 54 57
Fax 94 457 17 16
Mugitoki hotelaren zerbitzuak ematen ditugu.

Rafa Rueda, abeslaria

“Gero eta gusturago sentitzen naiz bakarlariaren paperean”

Larrabetzun, lehenengoz, Goikoelexaldeko jaietan ezagutu zintugun, Broken Bihotz taldean.

Bai. Duela 14 urte edo izan zen. Diskoa kaleratu berria genuen eta uda horretan kontzertu dezente egin genituen. Sasoi horretan asko ibiltzen nintzen inguruko herrien jaietatik eta Goikoelexaldekoak famatuenetarikoak ziren. Akelarre taldearen teloneroak izan ginen. Gaur egun herri txikiak jaiak nola aldatu diren ikusita, edadea gora doala datorkit burura.

Horren ostean, sortu zenuten PILT. Zerk eragin zuen estilo aldaketa hain nabarmena?

Broken Bihotz taldearen partaide guztiak - ni izan ezik - aldatzen joan ziren apurka-apurka eta azkenean gelditu ginenok musika estilo gogorrak entzuten genituen sasoi hartan. Azkenean, estiloarekin batera, izena ere aldatzea erabaki genuen. Eta horrela sortu zen PILT.

PILTek zenbaterainoko arrakasta izan zuen?

Lehenengo diskoarekin itzela izan zen, batez ere *Hil da jainkoa* abesti horregatik. Suerte handia izan genuen Radio 3eko lokutore bati barruraino sartu zitzaiolako eta emisora horretan egunero hasi zirelako taldea jartzen. Horrek estatu osoko hainbat hiritan jotzea ekarri zuen eta, euskaraz kantatzen zuen taldea izanik, dezente jotzen genuen Euskal Herrikan kanpo. Hurrengo diskoekin lasaitu zen apur bat, baina zalego fidela lortu genuen Euskal Herrian eta Espainian, eta hori ez da batere erraza.

PILTekin esaten ez duzun zer esateko sortu zenuen Kea diskoa?

Batez ere beste musika estilo bat jorratzeko sortu nuen bakarkako proiektua. PILTekin lau disko egin eta ordurako hainbat kanta gordeta nituen, estiloagatik taldean lekurik ez zutenak. Banenbilen zerbaite ezberdina egiteko gogoarekin eta, laugarren diskoaren bira amaituta, momentu egokia iruditu zitzaidan proiektu berriarekin hasteko. Indarra alde batera utzi eta armonia eta melodiarekin gehiago gozatzea nahi nuen. **Kea diskoarekin plazaratu zendun musikaren ikuskeraren eraginez deitu zintuzten Zaharregia txiekia, agian, Ehungarrenean hamaika, Txuma Murugarren eta Mikel Urdangarinekin lanak egiteko?**

Guztiekin neukan erlazioa aurretik eta elkarrekin lan egitearena komentatzen genuen inoiz. Beste estilo leunagoetan gau-



AIKOR! aldizkariaren 5.urteurrena ospatzeko ekitaldian Mikel Urdangarin eta Rafa Ruedak lau kantu eskaini zizkiguten. Orduan Mikelek jarri zuen ahotsa, oraingoraino, Rafak.

Testua: Gotzon Barandiaran
Argazkia: Gaizka Eguskiza

Mungiko gitarra-joleareari buruzko informazio guztia, www.rafarueda.com

za nintzela ikustek ere, beharbada, eragina izan zuen, baina beti ibili naiz tankera guztietako proiektuetan murgilduta eta, nahiz eta jende askori arraroa iruditu, niretzat ez da bat ere arrotza izan.

Saredun eskua diskoa Kea diskoaren garapena da edo beste norabide baterantz egin duzu?

Garapen naturala dela esango nuke. Sonoridade aldetik beste norabide bat eman nahi izan diot, teklatuaren erabilerarekin batez ere, baina kantugile moduan Kea diskoaren ildo beretik jarraitzen du. Gero eta gusturago sentitzen naiz bakarlariaren paperean eta, nahiz eta asko daukadan ikasteko oraindik, bide onetik noala uste dut. Erabat ezberdina da taldean edo bakarka aritzea, are gehiago estiloa diferentia denean, eta sendotasun hori denborak eta egiteak baino ez dizu ematen. Horretan

gabiltza.

Musikari profesionala zara. Baina posible da Euskal Herrian musikatik bizitzea ala?

Gauza asko egin behar dituzu. Proiektu batekin bizitzea oso zaila da, baina sartuta nagoen proiektu guztiak oso gustukoak ditut eta gainera musikatik bizitzeko aukera ematen didate. Ziurrenik, proiektu batekin ibiliko banintz ezinezkoa izango litzateke musika ogibide izatea, baina horretan ere suertea daukat, nahiz eta arriskua hor dagoen beti.

2008an diskoa grabatu behar duzula irakurri dugu.

Bai. Proiektu berezia izango da eta gogo handiarekin nago lanean. Urte oso bat daukat aurretik gogor lan egiteko ondo ateradadin. Betidanik ilusioa egin didan proiektu bat gauzatzeko aukera etorri zait eta aukera aprobetxatzea espero dut.

Korrika 15a martxoaren 26an ailegatuko da Txorierrira

Martxoaren 22an Karrantzan hasi eta apirilaren 1ean Iruñean amaituko da Korrika, Euskal Herrian zehar 2.150 kilometro egin ostean. Kalkuluen arabera, martxoaren 26an, 18:00ak inguruan, ailegatuko da Erandio Goikora. Bertatik Bilbora joan, eta 22:00etan Sondikatik sartuko da Txorierrira.

Ibilbidea

Txorierrri

18:01: Eroski-bus geltokia

18:09: Goiko zubia

18:14: Arriaga

18:19: Aurtenetxea

Erandio Goikoa

18:26: Eliza

18:31: Katea bus

18:39: Fabueta bus

Sondika

22:06: Txakoli taberna

22:15: Pike baserria

22:21: Ola

22:26: Gurutze ermita

22:30: Goiri

22:34: Kurtimendu-bus

Loiu

22:38: Renault-bus

22:42: Olarra 2

Derio

22:45: Nafrisa

22:51: Tren-geltoki zaharra

22:56: Landa etorbidea

23:03: Txepetxa

23:08: Kaioa

Zamudio

23:13: Fuentene

23:19: Salamandra

23:22: Eliza

23:26: Eskola

23:33: Plaza-bus

Lezama

23:38: Gasolindegia

23:45: Gurutze

23:53: Plaza-frontoia

Larrabetzu

00:00: Iberre-Gurutze Bide Zaharra

00:08: Sasine

00:14: Beresonaga

00:17: Eskola

00:22: Plaza

00:27: Sarrikola

00:31: Urkulu

00:34: Artola bus

Erletxe

00:42: Errotonda

Euskararen aldeko lasterketak 15. edizioa beteko du aurten, eta antolatzaileek *Heldu* aukeratu dute lelotzat: heldu herriari, hitzari, elkarlanari, euskarari eta lekukoari, hain zuzen ere. Korrika 15ek euskal emakumea omenduko du, euskararen biziraupenean izan duen garrantzia eta ezinbesteko papera goraiatzeko.

Betiko legez, Korrika Kulturala ere izango da herririk herri. Ohiko ekitaldi kulturalaz gainera, programazioa osatu eta abarasteko berrikuntza bat egongo da: Kulturbira. Egitasmoak plazaratzeko aukerarik ez duten emanaldi kulturalak bultzatzea du helburu, eta, horretarako, hainbat ekitaldi izango dira aurten Euskal Herriko zenbait herri eta auzotan: erakusketak, trikitaliak, bertsolariak, ipuin-kontalariak eta hitzaldiak, besteak beste. Kultur-bira otsailaren 25ean helduko zen Larrabetzura.

Gu eta Gutarrak Unai Iturriaga eta Igor Elortzaren proiektuak hasiera eman zion Korrika Kulturalari otsailaren 1ean. Lan horrekin batera, beste estreinaldi batzuk ere izan dira; Larrabetzuko Bihotz Bakartiaren Klubaren *Katamalo* obra, haien artean. Kontzertuak,

hitzaldiak eta antzerkiak ere egingo dira herririk herri.

Beste alde batetik, aipatzekoa da Joseba Gotzonek, Loiuko kantautoreak, Niko Etxartek Korrikarako egindako abestiaren grabazioan parte hartu duela.



Kultur-ekitaldiak

Martxoak 2, barikua

Goizez: *Kristobal Molon* filmaren emanaldia, Sondikan.

20:00: Txorierriko Korrika aurkezpena, Sondikan.

Martxoak 7, eguaztena

Pirritx eta Porrotx, Zamudion.

Martxoak 15, eguena

20:00: Asisko Urmenetaren hitzaldia, Derion.

Martxoak 17, zapatua

Bertso-afaria Lezamako Gaztedi jatetxean: Etxahun Lekue, Xabi Payá eta Ohiana Bartra.

Martxoak 18, domeka

19:00: *Honolulu leku bat* antzezlan, Gilkitzaro antzerki taldearen eskutik, Hori Bain.

Martxoak 20, martitzena

20:00: *Zirikin zakien* Bizkaiko koplazahar, X. Amurizaren eskutik, Zamudioko dorretxean.

Martxoak 23, barikua

Afaria Loiuko Aurregoiti jatetxean.

Martxoak 24, zapatua

Bazkaria eta erromeria, Larrabetzun; bazkaria Sondikako Zerurena jatetxean; trikipotea Erandio Goikoan eta horren ostean afaria Altzaga ikastolan.

Martxoak 25, domeka

Bazkaria, Derion. Korrika txikiak.

Martxoak 26, astelehena

20:00: Erdizka laueta dantza plaza, Lezaman.

Tailerrak, erromeriak... Sondikan, Derion, Erandion eta Zamudion.

Martxoak 30, barikua

Bertso-afaria, Zamudioko Lekunbiz jatetxean: Onintza Enbeitia, Sustrai Colina eta Etxahun Lekue.

Apirilak 1, domeka

Amaierako jaira irteera (Iruñera).

Izena emateko: txepetxa@aeknet.net;

Telefonoa: 94 454 39 67.

Borja Puente eta Alberto Marcos, Uribe Kostako Pilota Txapelketaren txapeldunak

“Profesionalak izatea ametsa izango zen”



Oraindik ez dira famatuak, baina Borja Puentek eta Alberto Marcosek jakin badakite, behintzat, txapel bat janztea zer den. Izan

ere, 16 urteko Zamudioko bikote horrek Uribe Kostako Pilota Txapelketa irabazi zuten gazte mailan. Lehendabiziko elkar-
rrietzeta Aikor! aldiz-
kariari eman diote.

Testua eta argazkia: Gaizka Eguskiza

Zorionak irabazi duzuen txapelarengatik. Espero zenuten?

Borja: Egia esan ez. Sorpresa handia izan da. Bagenekien zaila izango zela, baina ondo atera da.

Zein izan da partidarik gogorrena?

Alberto: Finalerdia gogorra izan zen, baita finala ere. Finalerdian Lezamaren kontra jokatu genuen eta horrek baditu bere alde onak zein txarrak. Izan ere, lagunak gara eta ondo ezagutzen dugu elkar. Beraz, primeran dakigu zelan jokatzeko duen baikoi-tzak, zeintzuk diren norberaren ahule-ziak...

Presio berezirik nabaritu duzue finalean?

B: Bai, dudarik gabe. Jende asko etorri zen partidak ikustera eta telebista kamarak ere hortxe zeuden.

A: Hasiera batean urduri geunden, baina partida hasi bezain pronto, jokoan murgil-
du ginen.

Zer esangura du txapelak zuentzat?

B: Niretzat meritu handia da, irabazten dudana lehenengoa baita. Txorierriko

*“Finalerdian Lezamaren
kontra jokatu genuen
eta gogorra izan zen,
elkar primeran
ezagutzen dugulako”*

Txapelketan Albertoren kontra jokatu eta galdu nuen finala.

A: Nik irabazten dudana hirugarren txapela da. Uribe Kostakoa eta Borjak aipatutakoez aparte, kimu mailan ere beste bat irabazi nuen Eñaut Atxutegirekin.

Eta orain zer?

B: Dagoeneko udaberriko txapelketa hasi da. Ligatxoaren lehenengo partida irabazi dugu. Bost multzotan banandu gaituzte pilotariok antolatzaileek, eta bakoitzean sei bikote gaude. Lehenengo edo bigarren postuan gelditu behar dugu final-laurde-
netarako sailkatzeko. Txapelketa Bizkaia

mailan egiten da, eta espero dugu ligatxoak behintzat gainditzea. Dena den, Udaberri-
ko Txapelketa Uribe Kostakoa baino zaila-
goa da, parte hartzen duten pilotariak
hobeak direlako.

Zelan hasi zineten pilotan jokatzeko?

A: Orain gazte mailan Borja eta biok baino ez gaude. Beraz, elkarrekin jokatzeko dugu. Beste bat zegoen, baina Lezamara joan zen jokatzera, eta beraren kontra jokatu ge-
nuen Uribe Kostako txapelketaren final-
erdia, hain zuzen ere.

**Zenbat egunetan entrenatzen eta joka-
tzen duzue?**

A: Astean birritan entrenatzen dugu: aste-
lehenetan Larrabetzura joaten gara eta
asteazkeneko, berriz, Zamudion bertan gel-
ditzen gara. Asteburuetan partidak antola-
tzen dira. Orain, esate baterako, ostiraletan
Udaberriko Txapelketan aritzen gara eta
zapatueta trinketean jokatzeko dugu.

Trinketean ere jarduten duzue, ala?

A: Bai, duela gutxi hasi gara eta jokatu du-
gun partida bakarrean 40-6 galdu genuen.

B: Probatzegatik hasi gara. Hala ere, ez du-
gu inoiz entrenatzen. Frontoi gutxi daude
inguru honetan, Getxon, Lekeitio eta
Mallabian, besterik ez.

**Zein da zuen helburua pilotan aritzean?
Profesionala izatea pentsatu duzue inoiz?**

B: Ondo pasatzea eta lagunekin aritzea,
batez ere. Ez dut uste profesionala izatera
ailegatuko naizenik.

A: Jokatu, jokatu eta jokatu. Hauxe da nik
nahi dudana. Denboraren poderioz, hobe-
tzen saiatuko naiz; ea etorkizunean enpre-
saren batek fitxatzen nauen. Guretzat ame-
tsa izango litzateke profesionalak izatea.

Zein da zuen pilotaririk kuttunena?

B: Niri Titin gustatzen zait: agian ez da
pilotaririk onena izango, baina bere adine-
rako ondo jokatzeko du.

A: Aurrelarien artean Martinez de Irujo
dut gogoko, eta Patxi Ruiz da gehien gus-
tatzen zaidan atzelaria.

AM
Formación
y
Traducciones

- Ingeluko malla gututien
- Pasaiako erregimenak
- Cambridge Unibertsitateko amerikar
prezaketak, DOU...
- Berezikiak ikasleak zuzendutakoak

Garaioitza 120 D
48196 LEZAMA
T: 94 455 61 69

Erremeneri 16
48150 SONDIKA
T: 94 451 61 08

amtraducciones@euskalnet.net
www.amtraducciones.com

Zerurena Jateak

Erremeneri kalea, 22
Telefonoa: 94 453 57 54
48150 SONDIKA (Bizkaia)
www.zerurena.com
e-mail: zerurena@zerurena.com

CAFETERIA GISSON

*Etzera eramateko
janaria!*
Asteartetik igandera zabaldu

Garaioitza, 12 B, baina
Telefonoa: 94 455 40 95
www.cafeteriagisson.com
48196 LEZAMA (Bizkaia)

Galaisa Ileapaindegia eta Estetika

Apain-apain ipin zaitez!

Geure buruarekin gustura egotea ezinbestekoa dela ondo daki Sondikako Galaisa Ileapaindegia eta Estetikako lan taldeak. Izan ere, hogeitaz hamar urte daramatzate bezeroen beharrezko erantzuna ematen. Zentro bakar batean geure burua eder ikusteko behar ditugun zaintza eta zerbitzu guztiak eskaintzen dizkigute.



Ileari dagokionez, dena dago modan gaur egun: adats luzeak eta motzak, ile-luzapenak, kolore eta xerlo deigarriak... Baina moden gainetik, ilea zaintzen dute Galaisan. “Bezeroei entzun, eta horien beharrezkoak betetzen saiatzen gara, beti ilerako onena dena egiten”, esan du Satur Lopezek. Horrela, bada, prebentzioa premiazkotzat hartzen dute eta hainbat tratamendu jartzen dituzte bezeroen esku, ile-erortzea, zahia eta koipe-arazoak, besteak beste, ekiditeko. Era berean, entzima eta kolageno-tratamenduak egiten dituzte eta nanokeratina ere erabiltzen dute ilea leun eta zeta-antzerara uzteko. Tratamenduetan egun-egunean daude Galaisakoak, beraz.

Denbora-eza gehienok dugun arazoa da eta ile-mozte landuak, baina, aldi berean, moldaerrazak nahiago ditugu. Galaisan tendentziarik berrienak topa ditzakegu: mota guztietako ile-luzapenak, rasta txirikordak, ileari bolumen handiagoa emateko teknikak, emaztegaiei eta lehenengo jaunartzea hartuko dutenei zuzendutako orrazkerak eta osagarriak... Eta burusoiltasun-arazoak izanez gero, horiek ere konpontzen dizkigute, ile-protesien bidez. Protesiok bezero bakoitzaren beharrezkoak kontuan hartuta egiten dira eta benetako ilea eta ordezkioa uztartzen dituz-

Orrazkeratendentzia eta estetika-tratamendurik berrienak topa ditzakegu Galaisan

te, oso itxura naturala lortuz.

Estetika-tratamenduak

Beste alde batetik, imajina ditzakegun estetika tratamendu eta zerbitzu guztiak topa ditzakegu Galaisan. “Eta horietan guztietan profesionaltasuna, aholkularitza eta kalitate-prezio erlazio ezin hobea eskaintzen ditugu”, azaldu du Ainhoa Kastresanak. Ohiko aurpegi eta gorputz-tratamenduez gainera, presoterapia eta elektroestimulazioa erabiltzen dituzte, hainbat arazotxori aurre egiteko: zelulitisaren kontrakoak, sendotzaileak, larruazal-ildoen aurkakoak, erlaxatzeko edota kontraktura muskularrak tratatzeko, eta abar. Basa eta algazko tratamenduak ere badituzte, eta konposatuak bertan egiten dituzte, ur termala erabilita. Tratamenduok uztartzeko aukera dago.



Linfa-drainatzea zentro askotan egiten hasi den zerbitzua da, eta hori ere eskaintzen dute Galaisan, “baina medikuaren baimenarekin beti”. Horrezaz gainera, Eusko Jaurlaritzak homologatutako solariuma dute, eta era guztietako makillajeak egiten dituzte. Azkenik, Indautxu klinikako ATS bat Galaisaraino hurbiltzen da, laser-depilazioa egitera.



GALAISA

Estetika eta ileapaindegia

94 453 04 85 - 94 471 10 51

Sabino Arana 1-3. SONDIKA

ILEAPAINDEGIA

ile-luzapen naturalak
ile-luzapen sintetikoak
ilea mozteak
orrazkera biltzeak
ile-protesiak



ERA GUZTIENTAKO ENERGIATZA-TRATAMENDUAK


● AURPEGIA:
silktermic,
aknearen kontra,
laser,
eguzkia hartu aurreko
eta osteko tratamenduak...

● GORPUTZA:
algak,
lokatza,
peeling,
presoterapia
elektroestimulazioa...

● MAKILLAJEA:
ezkontzak,
goizez zein gauzez,
fantasia...



Aikor.com, txorierritarron bilgune birtuala



AIKOR! aldizkaria aspaldi-an eskegi zen sarean pdf formatuan, baina Totoan Txorierriko Euskara Elkar-teen Federazioak beste pau-su bat eman eta aikor.com web orria jarri du abian. Bertan paperezko edizioan dauden albiste, artikulua eta atal guztiak topatuko ditu-zu, baita sekzio berriak ere.

Aikor.com web-guneak txorierritarron bilgune bir-tuala izatea du helbururik nagusia eta, horretarako, atari interaktiboa egin da. Hasierako orrian hainbat aukera izango dituzu, nahi duzun moduan apaintzeko. Halaber, zure bloga sortu, albisteak idatzi, Txorierriko ekitaldien berri eman eta argazkiak eskegi, beste-ak beste, egin ahal izango duzu. Aikor.com-en izena eman baino ez duzu egin behar. Webgunea urtarrile-an jarri genuen martxan, handik hona 2.000 bisitatik gora izan ditu.



Hotel Tryp Sondika

★ ★ ★

Ezkontzak
OSPATU ZEURE EGUNIK
BEREZIENA GUREKIN
Jaun-hartzeak

Carretera de la Avanzada, 2-4 • SONDIKA - 48150
Tel: (34) 91 530052 • Fax: (34) 91 4530620
E-mail: tryp.sondika@solmella.com

TRYP
HOTELES



Aikor! pdf formatuan

Web-gunean **AIKOR!** aldizkariaren ale guztiak izango dituzu, azkenetik lehenengora antolatuta. Aleok deskargatu ahal izango dituzu; horretako bigarren botoiarekin klik egin eta "gorde lotura honela" sakatu.

Zure argazkiak jaso eta konpartitu

Aikor.com-eko erabiltzailea ez bazara, argazkiak ikusi eta bilatu baino ezin izango duzu egin. Baina izena eman ondoren, zure argazkiak eskegi eta beste erabiltzaile batzuekin konpartitu ahal izango dituzu. Erretratuen azalpena emateaz gainera,

horiei tag-ak edo etiketak jartzeko aukera duzu, bilaketak askoz errazago egiteko. Halaber, zure argazkiak editatu eta albumetan sartu ahal dituzu, baita nahi dituzun erabiltzaileei zure argazkiak eta albumak kudeatzeko baimena eman ere.



Tag-ak: Derio | derio | Sasimartxo | Tximintx | tximintx

Sasimartxo egunean Errekaldeko landan

jamen-k egina

jamer
aurrekoak |
aurrekoa
erabili argaz
Argazki hau bi
(HTML-an idat
edo beste edo
kopiatu eta na
<a href="



Parte hartu gure lehiaketan

AIKOR! aldizkarian hilero-hilero egiten dugu lehiaketa. Saria Laia Hotel Museoa eskaintzen du eta horren barruan daude Spa zirkuitua, gela bikoitza eta buffet-gosaria. Orain **aikor.com**-en bidez parte hartu ahal duzu bertan. Lehiaketa atalean sartu, erantzuna eman, eta zorte on!

Sare-sistemak

PDA-zerbitzari sistemak
datu-zentralizatuak
sistema banatuak

Mac OSX, Linux, Windows

3D proiektuak

irudikapenak, aurkezpenak
objektu eta eszenatokiak
360°-ko panoramak

errealitaterantz hurbilduz

Leinak

Programak

kudeaketa, txostenak
kontrola, prozesuak
irakaskuntza

neurritza eginda

Webguneak

katalogoak, eskari-sistemak
korporatiboak, intranetak
kudeaketak

azken teknologekin

Idatz iezaguzu

Zerbait esateko edota iradokizunik egoteko baduzu, Gutunak atalean sartu eta kontu iezaguzu txorierri-tar guztioi. Zure gutuna **AIKOR!** aldizkarian ere argitaratuko dugu.



Txorierriko profesional eskura

Iturgina behar eta non topatu jakin ez. Zerbitzuak atalean Txorierriko profesional guztiak bildu ditugu, behar izanez gero eskura izan ditzazun. Horiek topatzeko, aukera bi dituzu: alfabetikoki ala jar-dueraka.



Puxikak, genero-indarkeria salatzen



2006ko Abenduak 20 (Derio) - AIKOR

Azaroaren 29an Genero - Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Eguna izan zen. eta mundu osoan

Berriemailea izan

Albisteak eta Artikuluak atalean Txorie-rriko informazioa eta bertoko pertsonaiei egindako elkarrizketak eta hainbat erreportaje interesgarri topatuko dituzu, hurrenez hurren. Eta hasierako orria zure gustura konfiguratu ahal duzunez, zuk zeuk eraba-kitzen duzu zein motatako albiste eta infor-mazioa nahi duzun bertan azaltzea.

Horrezaz gainera, informazioa konpar-titu eta Txorierriko albisteen berri eman ahal duzu; baina noski, horretarako, izena emanda izan behar duzu **aikor.com**-en. Gogoratu gure bailaran albisteak egunero-egunero sortzen direla. Gehienak paperez-ko edizioan topatuko dituzu; hala ere, beste asko webgunean irakurri ahalko dituzu.

Egunean!



Asko dira Txorierrin hilean antolatzen diren ekitaldiak. Horiek guztiak Agenda atalean kontsultatu ahal izango dituzu. Bertan agenda bi daude: bata **AIKOR!** aldiz-kariak egindakoa da, eta bestea zuk edo zure moduko beste erabiltzaile batzuk sor-

tutakoa.

Agenda lau era ezberdinetan ikusteko aukera duzu: egunean, bost egunean, aste-an eta hilabetea. Era berean, zenbait kate-goria ezberdin dituzu horren barruan, inte-resatzen zaizkigun ekitaldiak ikusteko.

ZAMUDIOKO ESTANKOA

Tabakoak, tinbrea eta opariak



Talleri kalea, 5 ZAMUDIO
Tfnua: 94 452 12 73


LARRATEGIA
J. ELORRIAGA
Etxeko berezitasuna: bertoko okela
Iturrikoetxe, 7
Tfnua: 94 455 89 41
LARRABETZU


Miguel Angel Lekue, garrainlaria
Larrabetzu
656 786 744 94 455 80 20

Zure bloga sortu

Blogak nahiko ezagunak egin dira aspaldi honetan. Zeuk ere zure bloga sortzeko aukera duzu **aikor.com**-en. Horrela, hainbat kezka, burutazio eta albiste konpartitu ahal izango dituzu beste blogari batzuekin. Oso erreza da bloga sortzea. Dagokion atalean sartu eta han agertzen zaizkizun argibideei jarraitu.

Zure blogaren jabea zeu izango zara: diseinua aukeratu ahal izango duzu, mezuek jasotako erantzunak kudeatu, beste erabiltzaile batzuei zure bloga gestioatzeko baimena eman, zure argazkiak eskegi... Baina, gogoratu: bloga sortu ahal izateko, **aikor.com**-en eman behar duzu izena.

Blogatek

Fitzategiak blogean nola eskegi

box

Box erabiltzeko erabiltzaileak zure blogaren fitxategiak erabiltzeko aukera du. Box erabiltzeko zure blogaren fitxategiak erabiltzeko aukera du. Box erabiltzeko zure blogaren fitxategiak erabiltzeko aukera du.

1) <http://www.aikor.com/fitxategiak> fitxategiak sartu.

2) fitxategiak erabiltzeko aukera du. Box erabiltzeko zure blogaren fitxategiak erabiltzeko aukera du.

3) fitxategiak erabiltzeko aukera du. Box erabiltzeko zure blogaren fitxategiak erabiltzeko aukera du.

4) fitxategiak erabiltzeko aukera du. Box erabiltzeko zure blogaren fitxategiak erabiltzeko aukera du.

5) fitxategiak erabiltzeko aukera du. Box erabiltzeko zure blogaren fitxategiak erabiltzeko aukera du.

Blog honi buruz

Blog honi buruz zure blogaren fitxategiak erabiltzeko aukera du. Box erabiltzeko zure blogaren fitxategiak erabiltzeko aukera du.

Lanarekin

Blog honi buruz zure blogaren fitxategiak erabiltzeko aukera du. Box erabiltzeko zure blogaren fitxategiak erabiltzeko aukera du.

LEZAMA MOTOR

- Carrocera
- Mecanica
- Electricidad
- Neumaticos
- Pre - J.T.V.

Reparaciones y mantenimiento
vehiculos y maquinaria
Deseamos bienvenidas
Presupuestos sin compromiso

Pol. Ind. Torrelamagallí (Bar. P. P.)
Torrelamagallí, 6. planta baja. 48150
48150 ZAMUDIO
Teléfono 94 455 88 97
Fax 94 455 88 97

HIZKUNTZAK:
HIZKUNTZA, HIZKUNTZA,
ALFABETUA, ESPANOLA

IKASGAIAK
INFORMATIKA

ENPRESETARAKO ESKOLA

Hizkuntzak ikasleko gaitasuna

LLA
MAGNIFICAS ALFABETUA

Torrelamagallí, 6 - 48150 ZAMUDIO (Bizkaia)
Tfno: 94 455 88 97 - Fax: 94 455 88 97
e-mail: amagallí@torrelamagallí.com

Goiri 78 S. L.
Servicio Oficial

POL. IZARZA
Tfnos: 94 453 25 15
94 453 39 31
48150 SONDIKA (Bizkaia)

GAZTELEKU TABERNA

LARRABETZU

Andra Mari, 6 - Tel 94 455 88 97

MAYORISTAS INFORMATICOS

EMPRESETARAKO INFORMATIKA
SAREEN, MANTENIMENDUA
SERBITZU TEKNIKOA

Pol. Ind. Torrelamagallí Pol. 6A Bloque 1 Nave 3
48170 Zamudio - Tfnos: 944521544

ZUTARRI S.L.

HARGINTZA, OROKORREAN.

ENKETAZKO BURBUJAKEN HARRI LANTZAKO ENKETAZKOEN KONTAKTUA
BERRITZATZEA, ITS ARKUIA, MOLDURAK
URTZOI HARRI AFARIKARRIEN ITZARPPAK, ITS...

Gaztelan 125 zila orpila. 48150 - Lezama - Bizkaia
Tel. 652.724.182 - Fax 644.354.275
Argitatu gaituzte, euskaratu gaituzte.
e-mail: zutarri@zutarri.com

Hästens
since 1862
Guztion ametselako
ohetik

ARTEAGA koltxoi-denda
Derioko Seminario • 94 454 51 47 • DERIO

www.hastens.com

Leinak enpresa, web-gunearen egilea

“Web-gune bizia da aikor.com”



Zertan oinarritu zarete web-gunea egiteko orduan?

Hurrengo tendentzia argi eta garbi ikusten da web-guneen munduan aspaldi honetan: jendeak horiek erabiltzen ditu, euren kontuak-eta azaltzeko. Eta, egia esan, gaur egun funtzionatzen duten web-guneak erabiltzaileari aukera hori ematen diotenak dira. Horregatik, **AIKOR!** mundu horretara eraman behar bazen, web-gune interaktiboa izan beharko zuela pentsatu genuen. Hau da, informazio hutsa eman beharrean, erabiltzailea web-gunearen partaide bihurtu behar genuen. Azken batean, **aikor.com** euskaldunok euskaraz erabiltzeko web-gunea da. Atari bizia da.

Aikor.com beta bertsioan jarri da sarean. Horrek behin behineko bertsioa dela esan nahi du; behin betikoa ekainean eskegiko da. Aldaketarik edo berrikuntzarik egongo da?

Xehetasun txiki batzuk definitu barik daude oraindik, eta horiek, hain zuzen ere, lantzen

Aikor.com web-gunea egiteko ardura **Leinak enpresak hartu du. Enpresa gaztea da, pasa den urteko apirilean sortu zena. Raul Bejaranok, Mikel Garaik eta Ioritz Larrabeitik osatzen dute Leinak-ko lan taldea.**

gabiltza behin betiko bertsioari begira. Bilaketak egiteko aukera egongo da eta atal batzuetan ere aldaketaren bat egingo dugu, erabiltzaileei web-gunean zehar nabigatzeko lana askoz errazagoa egiteko. Beste alde batetik, duela gutxi RSS bat jarri dugu. Hori lotura bat da, **aikor.com**-en emandako informazioa beste web-guneetan ere agertzeko.

Zertan aritzen zarete **Leinak** enpresan?

Informatika inguruan egin daitekeen guztia lantzen dugu: neurritan egindako edozein programa, web-guneak... Apaingarri asko izan beharrean, horiek erabilerrazak eta funtzionalak izatea nahiago dugu. Sare sistemak ere egiten ditugu, irudi korporatiboak, edozein proiektu digitala DVDean edo CDean...

Enpresa gaztea zarete. Zelan izan da hasiera?

Gogorra. Guk ez dugu krediturik eskatu; kapital soziala geuk jarri dugu eta proiektuak kobratu eta amaitu arte ez dugu etekinik ikusten. Perfekzionistak gara, xehetasunak zaintzea gustatzen zaigu eta horrek arazotxoren bat edo beste ekarri digu, baina epe luzera begira askoz hobea da horrela izatea... Kalitatezko lanak egitea dugu helburu; proiektu bakoitza erronka pertsonala da guretzat. Beste alde batetik, gaur egun inguruko enpresekin lan egiten dugu, baina las-ter zabalkuntza-kanpainari ekingo diogu.

Consulting S.L.
9951 48888
Babin Askolizaga
Aspirinagintza
Alliance
609 475 746
Tlf. 94 4531807
Fax 94 4536027
Mixine, 6 Debea
48150 Sondika-Bizkaia

pro audio
ESPECIALISTAS EN SONIDO
Jose Beltran Galle
Ivorlari ataribidea 15
48940 Sondika
Bizkaia tlfno: 991 533 325
www.proaudioalaska.com
josebeltran@proaudio.com

- hi-fi
- navegacion
- telefonos
- seguridad
- competicion
- personalizacion

HARATEGIA * URDAITEGIA
VICTOR
ELABORACION ARTESANA
Okela geuk produzitzen dugu;
egiten ditugu odolosteak,
txorizak, txistorrak, solomoak...
Plater aurrekoizinatua
Oñeri Kalea nº 4 • Tlf. 94 453 16 17
48150 SONDIKA (BIZKAIA)

Kalitatea, espazioa, lasaitasuna...
Aurki ezazu behar duzun guztia



Zure etxean gustura egotea nahi dugu Sukian. Horregatik, Landabarri Etxebizitza-gunea eraiki dugu, Bilbo Handiko habitat berria. Beti zure ametsa izan den lekua, etxebizitza pertsonalizatuak eta kalitatezkoak dituen. Goza ezazu kirol eta gizarte ekipamendu horietan eta berdeguneetan Bilbotik, aireportutik eta Teknologia Elkartegitik gertu dagoen inguruan. Zatoz Sukiara, zure etxean zaude.

 **sukia**
Zure etxean zaude.

www.sukia.com

AIKOR! aldizkariak lagun art



AIKOR!lagun

Egin zaitez euskararen lagun!

Izen-abizenak _____

Helbidea _____

Telefonoa _____ e-posta _____

Bankuko 20 zenbakiak _____

Urteko kuota: 30 euro _____ Beste kopuru bat _____

Orri hau helbide honetara bidali: Aikor! Aresti kalea 2, B – 48 170, Zamudio

Zure laguntzagaz aldizkaria hobetuko dugu!

ean ospatu du 5. urteurrena

AIKOR! aldizkariak bost urte bete ditu eta Totoan Txorierriko Euskara Elkartearen Federazioak jaialdi ederra antolatu zuen urtarilaren 25erako, Sondikako kultura etxean, urteurrena ospatzeko. Hara euskaltzale eta lagun asko bildu ziren; tartean izan ziren Andres Urrutia euskaltzainburua, Gotzon Lobera Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara zuzendaria eta Vicente Arteagagoitia Loiuko alkatea.

Txalaparta hotsak jendea areto barrura erakarri zuen eta Gorka Carro Sondikako alkateak hasiera eman zion ekitaldiari. Udane Goikoetxea Bizkaia Irratiko esata-riak aurkezle lanak egin eta hitza eman zien parte-hartzaileei.


Iñaki Urdangarin eta Rafa Rueda musikariek abesti batzuk kantatu zituzten eta, ostean, Toti Martinez de Lezea idazleak bere liburu baten pasadizo bat irakurri zigun euskaraz. Urtero bezala, AIKOR! sariak banatu ziren. Andres Urrutia euskaltzainburuak eta Xabier Goienetxe AIKOR! aldizkariaren zuzendariak sari bana eman zien Juan Luis Goikoetxea euskaltzain urgazleari eta Jose Luis Egiluz Txorierrri institutuaren zuzendariari, hurrenez hurren, euskararen alde egin duten lanagatik. Horrezaz gainera, aikor.com webgunea eta Aikorlagun kanpaina aurkeztu ziren jaialdian. Amaitzeko, luncha izan zen eta Kultur Etxera joandako guztiek kopau bat hartzeko aukera izan zuten. Jaia ordu txikietara arte luzatu zen.

Testua: Gaizka Eguskiza

Argazkiak: Gaizka Eguskiza eta Txaro Martin



Aikor! sariak



JOSE LUIS EGILUZ,

Txorierrri Institutuko zuzendaria.

Poztasun handiz hartu dugu Txorierrriko Eskola Publikoari Aikor! aldizkariak emandako saria. Eskola Publikoak Txorierrin duen indarra sendotzeko lan egiten dugunon partez, eskerrik asko Aikor! eta zorionak zuen 5. urteurrenean. Segi horrela!



JUAN LUIS GOIKOETXEA,

euskaltzain urgazlea.

Poz-pozik hartu dot Aikor! aldizkariak emon deustan saria, goienetxe-egurrez eginekoa. "Zer pentsatzen dozu?" baino "Euskeraz pentsatzen dozu?" itauntzen dogun euskaltzaleontzat, ederra da oso Txorierrriko euskaldun jatorren izenean Andres Urrutia Euskaltzainburuaren eskue-tatik saria jasotzea. Eskerrik asko! Bizitza luzea Aikor!

KIMA
Landarak
LANDARE APAINGARRIA
Gaitzila 59 • Tel.: 94 455 51 00 • Fax: 94 455 61 77
(48196 LEZAMA (BIZKAIA))

S.A.T. LEGY
LEZAMA
Gaitzila 59 • Tel.: 94 455 51 00 • Fax: 94 455 61 77
(48196 LEZAMA (BIZKAIA))

LOTERIA LEZAMA
BONOLITUA LOTERIA PRIMITIBA 1-X-2
SARITZARRA EUROMILIOAK
GABONTAKO ETA FRIGETAKO LOTERIEN ERRESERBAK
ZERBITZUA, ENPRENTATZAT, TABERNTATZAT, ETAB
ABITZALDE, 159 • 48196 LEZAMA (BIZKAIA) • TELEFONOA/FAX: 94 455 64 87

[illegible]

15 **korrika** badator!

æek heldu

SLAÐLAUSU LÖGMAÐUR LÖGGEFINGI

ETXERKO ZERBITZUETAN ESPEZIALIZATUAK



VIZCAINA DE PETROLEOS, S.L.

Gasóleo a domicilio

902 330 009

vp@gasoleosvp.com

harategia - urdaitegia

MIGUEL

ESPEZIALITATEAK:
URDAIAZPIKOA
ETA GAZTA



Mikel Deuna. 7 * DERIO 48160 * T: 454 52 94

 **GOIZOTZ**
Janari izoztuen denda

C/ Mikel Zarate, 5
Telefonoa: 94 453 80 00
www.goizotz.com

48150 SONDIKA
Bizkaia





Bertoko sukaldeak, kalitate oneko sukaldeak.

Kitchen sukaldeak

Zure sukaldean **%10ko DESKONTUA**

ARRATE

Edertasuna • Osasuna • Ongizatea

Isabelen Etxadok, 9
Artzaga Etxadok, 401 48100 DERIO Bizkaya
T: 94 454 15 37 - Mòbil: 858 751 249

Aretoa giroa bezain atsegina



Lehenengo aldiz Sondikara eroan zen AIKOR! aldizkariaren jaia; hain zuzen ere, hango kultura etxe dotorera. Kultura etxe horretan, antzerki saioak eta filmak eskaintzen dira normalean, baina oraingo honetan taularatu ziren aktoreak AIKOR! aldizkarikoak izan ginen.

AIKOR! aldizkariaren eta Sondikako Kultur Etxearen (SKE) ibilbideak uztartu egin dira, beraz; batetik, aldizkariaren bostgarren urteurrenaren ospakizunak egin ziren eta, bestetik, luxuzko areto horren bigarren urteurrena ere bazen. Normalean beste era bateko ekitaldiak hartzen ditu SKEk, baina azkenean guztiok pozik irten ginen. "AIKOR! aldizkariaren jaia primerakoa izan zen, SKEaren baliabide guztiez baliatu zelako: zuzeneko musika egon zen, diapositiba zein bideo emanaldiak eskaini ziren, lagun batzuek eszenatokiaren gainean hitz egin zuten...", adierazi du Unai Aurrekoetxea Sondikako Udaleko Kultura zinegotziak

Bi urte bete eta gero, SKEaren ibilbidea

aztertze orduek da. Eta azterketa pozgarria da, nahiz eta hasierako urratsak errazak izan ez. "Hasiberriak gara eta mundu osoari zuzendutako ikuskizunak ekartzen saiatzen gara, baina batzuetan huts egin dugu. Bidean ikasten gabiltza", aitortu du Aurrekoetxeak. Dena dela, helburuekin bete-betean asmatu dute. "Xede bikoitza dugu: alde batetik, herriko kultur taldeei zabaltzen diegu SKE, saioak edo entseguak egiteko. Bestetik, gure asmoa antzerkirako zaletasuna piztea da. Eta txorierritarrei zera jakinarazi nahi diegu: asteburuetan ez da beharrezkoa Bilbora joatea kultura ikusteko; etxetik gertu, Sondikan bertan, ekitaldiak eskaintzen ditugu".

Egitarau oparoa ikusteko aukera dago

Sondikan umeei begira, batez ere. Lau filmak eta antzezlan pare batek hilean osatzen dute, bataz beste, eskaintza nagusia. Horietatik aparte, hitzaldiak, ikastaroak edo saio bereziak antolatzen dira Gabonetan zein herriko jaietan, eta horretarako, auditorioaren ondoan erabilera anitzeko gela eta bi ludotekak lagungarriak dira. Muga bakarra aretoaren ezaugarriek beraien jartzen dute. Izan ere, "eszenatokia oso handia ez denez, ertaineko emanaldiak baino ezin ditugu antzeztu", esan du Aurrekoetxeak.

Ikuskizun handiekin batera, zuzeneko musika botatzen du faltan zinegotzi horrek. "Abesbatza, gitarra-joleak eta harizko laukoteraren bat etorri da. Hala ere, pop edo rock kontzertu batek ez luke zentzu handirik izango. Bertan jendeak dantza egiteko lekua izan behar du, baina SKE ezinezkoa da, eserlekuz beteta dago eta. Gustuko genuke horrelako areto bat izatea, baina SKEarekin aukera gehiago betetzen ditugu eta poz-pozik gaude".

SKEk eskaintzen dituen etekinak kulturalak dira, noski. Diru aldetik, ordea, ez da batere errentagarria, Aurrekoetxeak azaldu duen bezala. "Filma bat jartzeagatik 400 euro inguru ordaindu behar dugu. Horri teknikariak kobratzen duena zein garbiketara gaineratu behar zaizkio. 192 eserleku daude eta ikusle bakoitzak bi euro ordaintzen du. Hortaz, pelikula guztietan aretoa beteko bagenu ere, ez genuke nahikoa diru gastu guztiak pagatzeko". Hala ere, Udalak ez du nahi txartelak doan izaterik. "Bestela, jendeak ez luke lekua errespetatuko", argudiatu du Kultura zinegotziak.

"Asteburuetan ez da beharrezkoa Bilbora joatea kultura ikusteko, Sondikan ekitaldiak eskaintzen ditugulako"





SKE: datuak zein irudiak

	2005	2006
Ikusle kopurua	5910	7139
Ekitaldiak	90	74
Haurrentzako antzerkia	13	14
Helduentzako antzerkia	11	7
Gazteentzako zinea	41	23
Hitzaldiak, jaialdiak...	10	6
Kultura taldeak	8	10
Mankomunitatearen ekitaldiak	7	8



Piratas del Caribe



Monty Python



Kiriku eta basapiztiak



SONDIKAKO KULTUR ETXEA
Cestero kalea, 1 (elizarean atzean)
Telefona 94.453.64.13

ZINEA

Igandero, 18:00etan

12 urte: 1 €
+12 urte: 2 €

Martxoaren 4a:
EL CORRAL. UNA FIESTA MUY BESTIA

Martxoaren 11a:
REBOTE

Martxoaren 18a:
BASIL, EL RATON SUPERDETECTIVE

Martxoaren 25a:
LA CENICIENTA

*Johannes Ullmannen kumarrak Udaleko Kultura Arian gorde behar dira
(T: 94.453.51.71)

ANTZERKIA

Martxoaren 10ean, larunbatean
20:00etan


WALT DISNEY ME JODIÓ LA VIDA
La Lulú Comedi
(gazte eta nagusientzat, gaztelera?)

Sarrera: 10 €

Martxoaren 23an, ostiralean
18:30etan

POTXIN PATXIN HIRIBURUAN
(pailazoak, euskaraz)

-12 urte: 3 €
+12 urte: 5 €



WATZPATRI KULTURATIA
=
venta de entradas

Bekariak erosten
kontsumatzen dira
telefonoan 944 310 310
eta los cajeros de
autocine de bbk
o por teléfono
944 310 310

bbk

txarteldegian
ordtu bat lehenago

Nola sortu zen liburua idazteko aukera?

Joan den urteko martxoan gerraren gaineko erreportajeak hasi nintzen egiten irratirako, eta 1936ko uztailaren 18ko estatu-kolpearen 70. urteurrena dela-eta, Radio Euskadik gerran bizi izandako esperientzia kontatzeko gonbidapena luzatu zien entzuleei. Erreportajeak eta testimonioak liburuan uztartzea proposatu ziguten. Liburuarekin batera CD bat argitaratu da, zeinetan irratian emandako erreportaje batzuk batzen baitira.

Zein helburu du lanak?

Euskal Herrian, zoritzarrez, ez dugu gure historia ezagutzen. Nire adinetakooi kontatu diguten gerraren bertsioa ez da zuzena, eta, beste alde batetik, kontu hori ez dugula arakatzen jarraitu behar ematen du gaur egun. Duela urte batzuk Gerra Zibilaren errebisionistak liburuak argitaratzen hasi ziren, eta horietako batzuek arrakasta handia izan dute, gainera. Baina gerra ikuspuntu neofrankista batetik tratatu dute, eta, nire ustez, beldurgarria da, jendeak guri eskolan saltzen saiatu ziren gerraren gezurrezko bertsio bera barneratuko duelako. Gure lanak helburu dibulgatzailea du. Publikoak ezagutzen ez dituen gure historiako datuak kontatzeko aukera eman diegu hainbat historialariri. Historia ezagutu behar dugu, akats berdinak ez egiteko.

Gezur asko esan digute?

Gezurak eta erdi egiak, batez ere. Urteetan zabaldu den bertsio ofizialaren arabera, gorriek suntsitu zuten Gernika, eta Franco hil osteko gobernu batek ere ez du oraindik horren kontrakoa esan ofizialki. Zalantza asko daude bonbardaketa horren gainean, eta nik, Francoren gauza izan baino, alemaniarren gauza izan zen susmoa dut, frankistak ustekabeen harrapatu eta asuntua estaltzen saiatu baitziren, gorriei errua botaz. Alemaniarrek Bigarren Mundu Gerran erabiliko zituzten gerrateknikak entseatzeko zebiltzan, eta aukera aproposa zuten hori... Beste alde batetik, Durangoko bonbardaketan Gernikakoan baino biktima gehiago egon omen ziren,

*“Errebisionistek
ikuspuntu neofrankista
batetik tratatu dute 36ko
gerra, eta hori
beldurgarria da, jendeak
guri eskolan saltzen
saiatu ziren gezurrezko
bertsio bera barneratuko
duelako”*

Iñaki Berazategi, kazetaria



“Erdi egia asko kontatu digute”

EITBk 1936: Memoria de la Guerra en Euskadi liburua argitaratu zuen Durangoko Azokarako, Gerra Zibilaren 70. urteurrena dela-eta. Liburua Iñaki Berazategi kazetari larrabetzuarrak idatzi du Javier Dominguezekin batera. Bertan gerraren gaineko erreportajeak eta leku-koen testimonioak batu dituzte.

hala ere, Gernikakoa askoz harrigarriagoa izan zen. Eta ez da kasualitatea herri osoa suntsitzea, Batzar-Etxea eta arma-fabrika izan ezik. Kalkulatuta zuten hori... Biktimei dagokienez, faltsutze asko ere egon dira. Gorpuek ez bazuten bonben arrasto zehatzik, bihotzekoa izan zutela esaten zuten.

Liburuan jasotako testimonioen artean, zein nabarmenduko zenuke?

Askok daude. Marcelo Usabiaga, adibidez, Alderdi Komunistako gazteen mugimendukoa zen, eta borrokan hasi zen 1934ko urriko iraultzan, iheslarietako Frantziara pasatzen laguntzen. Gerra Zibilean heriotza-zigorra ezarri zioten... Beste alde batetik, Ernesto Carratalá San Cristobal gotorlekuko ihesaren lekukoa izan zen... Baina badago Baionako brigadista internacional bat liburuan agertzen ez dena. Horrek Teo Francos du izena eta Gerra Zibilean ez ezik

*“Txorierrin dauden
gerraren arrastoak
katalogatzea beharrezkoa
izango zen, Gerra Zibila
interpretatzeko zentroren
bat zabaltzeko inoiz”*

Bigarren Mundu Gerran ere parte hartu zuen. Parakaidista ingelesekin ibili zen eta Holandako Arnheim zubian harrapatu zuten alemaniarrek. Fusilatu egin zuten, baina ez zen hil. Bertako bikote batek ezkutatatu zuen etxean. Zaila da lekukoak topatzea, izan ere, gehienak hil dira edo 90 urte baino gehiago dituzte. Beraz, asko garai horretan umeak zirenen testimonioak dira edo horien ondorengoenak...

Ez. Erreportajeak abuztura arte egiten jarraitzeko asmoa dut. Hil horretan Santoñako Itunaren 70. urteurrena beteko da, eta itun horrek gerrari amaiera eman zion Euskadin. Emisoreari beste liburu bat ateratzea proposatuko diot; baina azken erabakia haiek hartu behar. Dena dela, Euskadiren gaineko erreportajeak ez ezik beste batzuk ere egin dira: nazioarteko brigaden gainean, Durrutiren heriotzari buruz... Duela gutxi komunikabideek gerran izandako papera eta propaganda-zinearen inguruko erreportajeak hasi ditut, eta Jose Antonio Agirreri eta Indalecio Prietori buruzko materiala batu dut, biografia-erreportajeak egiteko. Gerra Zibilak Iparraldean izan zituen ondorioen gaineko lana ere egingo dut.

Testua eta argazkia: Itxaso Marina

Nire garaia iritsi da

Nora joateko erabakitzeak ordua iritsi da. Horregatik segurtasuna ematen didan zentru bat behar dut. Eta badakit Txorierri Unibertsitateare joateko edo leinmerkatura zuzenean sartzeko (praktikak eta gutxi errazten dizkidate) prestakuntza onena eskaintzen didatela. Txorierri nik bilatzen dudak kalitatea duela uste dut.



TXORIERRI
UNIBERTSITATEA



Fueki



ISO 9001



ISO 14001



SGS



SGS



SGS



SGS

SGS

SGS

SGS

SGS

SGS

SGS

SGS

SGS

SGS

SGS

SGS

SGS

SGS

SGS

SGS

SGS

SGS

SGS

SGS

SGS

SGS

SGS

SGS

SGS

SGS

SGS

SGS

SGS

SGS

SGS

SGS

SGS

SGS

SGS

SGS

SGS

SGS

SGS

SGS

SGS

SGS

SGS

SGS

SGS

SGS

SGS

SGS

SGS

SGS

SGS

SGS

SGS

SGS

SGS

SGS

SGS

SGS

SGS

SGS

SGS

SGS

SGS

SGS

SGS

SGS

SGS

SGS

SGS

SGS

SGS

SGS

SGS

Derioko Lagun Onak Txokoa

“Txoko gutxik izango dute hemengo mugimendua”

Derioko Lagun Onak Txokoak 30. urteurrena ospatu du aurten, 1976eko abenduaren 8an inauguratu baitzuten. Bere sorreraz eta ibilbideaz gehiago jakin gurean, Gorka Zallo presidentearengana eta Jabier Zubieta sortzaileetarikoa batengana jo dugu.



BITXITIGIA - TRIOTU-DENDA

Ruben

Lehendakari Leizola Plaza, 5 - Tel.: 94 452 14 49
Zarauzko (Bizkaia)

txokotak

EGUNERO ZABALIK

Ordutegia:
13:00etatik 15:30ra eta
20:00etatik 23:30ra arte

Etxearekin lotutako
zerbitzuak: 1 €

Bestorrene 5, Bidea 48180 DERIO
T: 94 454 55 55

LEJARRENE JÄTETXEA
Gurealetxeak ezazu, 102 • LEZAMA • T: 94 455 85 48

Bisitatu gure bloga

www.blogari.net/tximintx

Baserritarren Alkartea
Lezama S. Coop.

Aretxalde, 21 BIS
48196 LEZAMA
☎ 94 456 60 16
e-mail: krama@foc.org
Bazkideak: 144

Pentsu naturalak

Noiz eta nortzuek sortu zenuten txokoa?

Vista Alegre auzotik txikiteoan ibiltzen ginen taldea 1975ean hasi ginen biltzen, zerbait egin nahian. Derioko hirigunea sei etxe besterik ez ziren orduan. Hamabiren bat lagunek osatutako batzordea sortu genuen, non eta noiz egin erabakitzeko. Lagun bati eta neuri beste txoko batzuei buruzko informazioa biltzea tokatu zitzaigun: zein zen funtzionamendua, barne estatutuak, eta abar. Garai horretan edozein batzar egiteko, baimena eskatu behar zen "gobernazioan", zer tratatuko zen aurretik azalduz. Bakoitzak 6.000 pezeta jarri genuela uste dut, eta lokalerako mailegua eskatu genuen. Zalantza batzuk izan genituen; emakumeak txokora noiz sartu, esate baterako. Azkenean igandero sartu ahal izatea erabaki genuen; beste txoko batzuetan urtean behin zeukaten. Geroago aldaketa batzuk egin dira, egunero sartu ahal izateko. Umeak edo hamazortzi urtetik beherakoak ezin ziren txokora sartu lehen, eta gaur egun igandeetan etor daitezke gurenera.

Beste txokorik bazegoen hemendik?

Bai, On bide txokoa. Baina hori eliteko txokoa zen, orduko agintarien txokoa: alkatea, albaitaria eta abar.

Zenbat bazkide zarete?

Hasiera batean 50 bazkide hartu genuen mugatzat. Eta 30 lagun inguru hasi ginen, baina lehen urtean bete zen. Bazkide-kopurua handitu, eta, azkenean, 60 bazkide hartu genuen mugatzat. Gaur egun kopuru horrekin jarraitzen dugu. Bazkide berria izateko, idatzizko eskaera egin, eta bazkide biren laguntza izan behar da. Bajaren bat dagoenean asuntua batzarrerara eramaten da, eta botazioaren bidez egiten da. Baja denaren familiarrek

"Emakumezkoak egunero sar daitezke txokora, eta hamazortzi urtetik beherakoak igandeetan"

lehentasuna dute.

Arazorik izan duzue inoiz?

Bai. Inoiz bai, hasieran. Berton kolore politiko guztietakoak gaude, eta garai gatazkatsuak ziren hasierako urteak. Nahi eta nahi ez, hori arlo guztietara eramaten zen. Gainera, nahikoa zen batzarkide batek bazkide-gai baten kontra egitea (bola beltza ateratzen), hori txokoa ez onartzeko. Kasu batean gertatu zen eta geroztik aldatu egin ditugu estatutuak. Gaur egun heren batek eman beharko luke ezetza bazkide berria ez onartzeko.

Zein da txokoaren erabilpen maila?

Handia, oso handia. Garaiak daude, baina normalean egunero dago zerbait, eta ekintza asko, asteburuetan. Orain gutxiago, baina garai batean gastronomia txapelketetan parte hartzen genuen. Beste alde batetik, txokoko bazkide askok hainbat sari eskuratu dituzte txapelketetan. Hasieran mus, tute... txapelketak antolatzen genituen, txokoa animatzeko. Baina gaur egun ez da beharrezkoa, berez dago eguneroko animazioa. Gutxi izango dute hemengo mugimendua. Arrazoa espazioa izan daiteke, lokal handia dugu-eta, 360ren bat metro karratu. Eta badakizu lekua izango duzula ia beti. Hain txoko handiak gutxi daude. Batzuetan, 100tik gora lagunak izanez gero,apur bat estu bazkaltzen dugu.

Testua: Bestorrene



Garmendia ardoak

Tinuso pol., 7-3B
ZAMUDIO
Tel./Fax: 94 452 00 49



ENREKA ONDO ETXEA

Egunero menua, asteburuko menu berezia, karta, enpresen bazkariak, jaunartzeak, familien bazkariak

Artiago, 80
/Antzindoa 48170 (Bizkaia)
Iteloa: 94 452 14 18
Fax: 94 452 26 28



CARROCERIAS TXORIERRI

TXAPA ETA LABE-PINTURA

Torrelagolti Pol. Vial sur C-10, Nave BS 148160 Zamudio BIZKAI
Tel/Fax: 94 452 29 03



Bodegas Ortu-Ondo, s.a.

BODEGAS
CRUCIAMP
CONCRETE
BODEGAS ELKORTA
AGUA RESALES
1.º y 2.º PLAZAS
CAJAS DE GORDIA
BODEGAS Y VINO

Urdulagorri Poligona III Ind., 7-4
TINUSO. 94 452 15 90 Fax: 94 452 36 90
48170 ZAMUDIO
e-mail: ortuondo@kardicia.com



Bar TRIPPY

ZURE GIRORIK ONENA

Gura baduzu ondo pasatu, musika ona entzun eta futbollean jokatu, etorri zaitzez Trippyra, Deriara

Beheko Kalea Baxo
DERIO



UMEENTZAKO MODA Tximeleta

Gernikako Arbela, 8
Teléfono: 94 454 14 35
Fax: 94 454 38 26

48160 DERIO
Bizkaia



BIDE-GORRI

Era askotako pintadak - Plater konbinatuak
Bidegorriak irekia

Txinbo Kalea, 9
48170 ZAMUDIO (Bizkaia)

Tel. 94 452 76 75



ZAMUDIO MOTOR

94 452 1616
94 452 1646

Pol. Torrelagolti
Pab. 6, Bloque 3
48170 ZAMUDIO
BIZKAI



BAR TXIKI

ESPEZIALITATEA, TORTILLAK

Lehendakari Mendi Plaza, 6
48170 ZAMUDIO Bizkaia
Telefonoa: 94 452 04 88



BAR BIDE-BI


goizeko 5etatik aurrera zabalik

Gosari bereziak

Telefonoa: 94 452 20 48
Leizaola Lehendakaria plaza, 3

Oroimena honda liteke, lo ezaren eraginez

Harvardeko Medikuntza Eskolaren ikerketa baten arabera, lo gutxi egiteak geroagoko esperientzien oroitzapena honda lezake, hipokanpoaren funtzionamendua aldatzen da eta. Ikerlana *Nature Neuroscience* aldizkariaren bertsio digitalean argitaratu dute.



Aurreko ikerketek frogatua zutenez, bizipenen osteko loak eragin zuzena izan lezake ikastean zein oroimenean. Baina azken ikerketa honetan beste pauso bat egin eta argitu da bizipenen aurreko loa ere kritikoa dela eta, lorik egin ezean, memoriaren sistema ez dabilela ondo.

Ikerketan parte hartutako lagunek lorik egin barik eman zuten gau bat. Ikerlariak eskatu zieten irudi sorta zabalari begiratzeko eta irudiok gogoan gordetzeko, geroago ezagutze proba egin beharko baitzuten. Erresonantzia magnetiko funtzionaleko irudien bidez (IRMf) kontrolatu zuten garunaren jarduna, lagunek diapositibak ikusten zituzten bitartean. Beste alde batekin, beste partehartzaile batzuek ariketa berdina egin zuten, baina salbuespen batekin: haiek, berriz, lo egin zuten gau osoan.

Ikerketaren emaitzetan azaltzen den bezala, lorik egin ez zutenek jardun txikiagoa zuten hipokanpoan diapositibak ikusten zituzten bitartean, gaua lo egiten eman zutenek baino. Hipokanpoa oroimenean oso eragin inportantea duen burmuinaren alde bat da. Horrezaz gainera, lorik egin barik zeudenek ere ahalmen txikiagoa zuten geroagoko gauzak gogoratzeko.

Hipokanpoaren aktibazioarekin lotuta dagoen burmuinaren beste alde batzuetako aktibazioa ere aldatuta azaldu zen. Horrek esan nahi du lorik ez egiteak memoriaren prozesatze estrategiak aldarazten dituela.

Iturria: diariodesalud.com

MARMOLGINTZA
GOYO
 SUKALDE-GAINEKOAK
 OBRAK ETA HILERRIAK
 Ugaldoguren I ind., 18-B nabea
 48160 DERIO (Bizkaia)
 Tfnoa.: 94 454 02 93 - Faxa: 94 454 50 63

CAFETERIA
IAZI
 Eguneko menua eta
 Menu berezia
 JATA KALEA. 2 - Telefona 94 454 29 56 - DERIO (Bizkaia)

Carnicería
Charcutería
IMAZ
 MUNGIALDE ETORBIDEA, 2
 TLFNOA: 94 454 10 75
 DERIO
 Eskerrik asko
 elortzeagailik

eleizalde
 kafetegia
 Lainemendi, 7
 (Uzaren aurrean)
 48160 DERIO (Bizkaia)
 Telefona: 94 454 52 88


Inmobiliaria
ETORKI
 Mungialde etorbidea, 4 bajo
 Tel. 94 454 50 53
 Mobila: 607 32 35 53
 48160 DERIO

DERIO FRUTADENDA
 Sollube, 8
 Tfnoa: 605 77 12 62
 DERIO

“Euskara” agerkariaren ale guztiak, sarean

Euskaltzaindiak Euskara agerkariaren ale guztiak jarri ditu bere web orrian: www.euskaltzaindia.net. Euskara agerkaria Euskaltzaindiaren aldizkaria da eta 1919tik aurrera argitaratzen da; hala ere, etenaldi bi izan ditu: 1938tik 1952 bitartekoa eta 1954 eta 1955 urteetakoa. Aldizkarian biltzen dira akademiaren lan eta agiriak eta hainbat egileren artikulua eta txosten akademikoak.

Aldizkariaren bertsio digitalak bilaketak egiteko sistema bi ditu: bata orokorra da (egilea, izenburua edo urtea) eta bestea akademiaren barne antolaketa araberakoa (jardunaldiak, biltzarrek, adierazpenak...). Artikuluak PDF formatuan ireki daitezke eta bakoitzak bere fitxa bibliografikoa du.



“Bertsoa.com”, Irazuren eskutik

Jexux Mari Irazu bertsolariak bertsoa.com web orria sortu du. Bertso plaza digital honek Interneten bertsolaritza presentzia sustatzea du helburu. Web orri honetan, txapelketa eta saio batzuk ikusteko aukera dago, neurria egindako bertsoak eska daitezke eta bertsoan bat-batean ere egin daiteke bertso eskola digitalean.

Bizkaiko dantzarien ataria, “dantzaret.net”

Bizkaiko Dantzarien Biltzarrek dantzaret.net web orria jarri berri du abian. Euskal dantzak eta, bereziki, Bizkaikoak gogoko dituztenentzako ataria da informazio interesgarri asko eskaintzen ditu: federazioaren historia, Bizkaiko dantza taldeak, dantzaren historia edo Bizkaiko Dantzarien Egunaren inguruko datuak, esate baterako.

Domeinuen izenek alfabeto txinatarra eta arabiarra onartuko dituzte

ICANN (Internet Corporation for Assigned Names and Numbers) erakundeak domeinuen izenak hizkuntza eta alfabeto berrietara zabalduko ditu. Horrela, IDN (Internationalized Domain Names) proiektuak gaur egungo Domeinuen Izenen Sistema (DNS) moderniza-

tuko du, horrek hizkuntza eta alfabeto berriak onar ditzan. Alfabeto horien artean, txinatarra eta arabiarra egongo dira, izan ere, gaur egun ezin dira ASCII karaktere-jokoarekin sortu. Beste alde batek, ICANN erakundea lehenengo mailako .asia domeinu berria prestatzen dabil.



TXAKOLINA
LUISABRE

11% Vol. 75 cl.

Garaioitza, 87
Tel: 94 455 65 41
670 87 37 36

Bizkaiko Txakolina.
Denominación de Origen

Victor Gamboa Garabietak biltu, prestatu eta botilatzen
LEZAMA SPUN

N.R.F. 48/48570/PK

Kudeaketarako Sozietatea
Birziklatzeko Zentro Aurreratua

SOGE CAR

Tratamendu lerroak
-Erabililtako oloak
-Agortutako taladrinak
-Disolbatzaileak
-Automozio
hondakinen kudeaketa osoa

Torrelarragoiti ind. z/g 48170 Zamudio
Telefonoa: 944 977 177 - Faxa: 944 522 619

GORBEIA MERTZERIA

Gorbeia kalea, 7
ZAMUDIO
94 855 90 08

OBRAS Y REFORMAS
94 406 04 01 / 615 742 788

Gorrotxa

Berriztatze Integralak
Gremioen koordinazioa

Lehendakari I. Etxebarria, 2. beheko
48170 ZAMUDIO
Tel: 94 406 04 01 - Fax: 94 406 04 08
Móvil: 615 742 788



Gotzon Barandiaran, BBK-ren taldekidea

“Gosez geldituko da jendea”

Bihotz Bakartien Klubak *Katamalo* lana aurkeztu berri du Korrika Kulturalaren ekitaldien barruan. Larrabetzuko taldearen azken lanak Gotzon Barandiaranek idatzitako 10 poemak hartu ditu oinarritzat.

Zer da katamaloa?

Ez da oso hitz ezaguna; euskaraz maskara esan nahi du. Baina katamaloa ez da soilik kontzeptu fisikoa, aukera ematen dizu askoz gauza zabalagoei buruz ere hitz egiteko. Katamaloa janzen dugunean, ez garena azaltzeko edota benetan garena ez agertzeko egin dezakegu: jendaurrean ez garen moduan agertzeko daukagun joera da, azken batean. Zergatik? Beldurragatik, lotsagatik, jendea engainatu nahi dugulako... Eta hain kontzeptu zabala izanda, gai asko jorra daitezke: esparru pertsonalean sartzen direnak, harreman edota egoera sozialei buruzkoak... Adibidez, testu batean lan-istripuez mintzatzen naiz. Lanpostuetan hildakoen kopurua oso handia bada ere, ohikotzat hartu, eta ez dugu ezer egiten. Gure bizitzarekin jarraitzen dugu, eta horrek hausnarketara bultzatzen nau. Beste alde batetik, Maialen Lujanbioren bertso batzuk ere agertzen dira obran. Bertan hurrengoa azaltzen du: pertsonaia publikoa den heinean, ezaguna da, baina, aldi berean, ezezaguna ere bai, jende askok berari buruz hitz egiten duelako, benetan nola den jakin barik.

Zerk ezberdintzen du *Katamaloa Arrakalak* lanetik?

Oraingo honetan musika da ardatza. Nahiz eta poemak obraren oinarria izan eta nik sarrera batzuk irakurriko ditudan, kantuak dira; kontzertuak eskainiko ditugu. Katamaloa kontzeptu bezala hartuz gero, emanaldi kontzeptuala dela esan dezakegu,

*“Zerbait ezberdina
eskaini behar genuela
erabaki genuen, eta
musikak, berez,
laguntzen du mezua
irakurleengana heltzen”*

letra guztiek hari hori dutelako komunean. Baina, beno, kantuak diferenteak dira euren artean.

Zergatik formatuaren aldaketa hori?

Gure emanaldietan testu hutsak errezitatzen hasi ginen, baina geroago musika sartzea erabaki genuen, batez ere, jendaurreko ikuskizunak ere badirelako. Eta musikarik gabeko testu hutsa duen emanaldi baterako jendea ohituta ote dagoen planteatu genion geure buruari. Horrezaz gainera, liburu ere hor dago, eta poemak sakonki landu nahi izanez gero, jendeak liburuan bertan egin dezake. Beraz, guk zerbait ezberdina eskaini behar genuen, zeinak komunikazioa erraztuko baitu, agian. Izan ere, musikak laguntzen du mezua irakurleengana heltzen. Guk ere hainbat autoreren poemak ezagutu ditugu kantuen bidez.

Buru-belarri zabiltzate entseguetan, pozik?

Oso gustura gaude entseguetan; oso kantu onak ateratzen ari dira, gure ustez. Guretzat salto handia da, eta ordu pilo bat sar-

Katamalo, gertutik

Musikariak

- Alex Arregi: ahotsa, gitarrak, Venezuelako cuatroa.
- Aintzina Lekue: Bibolina.
- Gorka Mugarza: Esku-soinu handia, teklatuak.
- Gorka Urbizu (Berri Txarrak taldeko abeslaria): Ahotsa eta gitarrak.
- Nerea Urbizu: Teklatuak, kajoia, koroak.

Testuak

- Gotzon Barandiaran
- Maialen Lujanbio

Emanaldiak

- Martxoak 1:** Bilboko Kalderapekon, 20:00etan.
- Maiatzak 8:** Basauriko Ganbaran (Arizko Dorretxean), 20:00etan.
- Maiatzak 12:** Altsasuko Iortia kultura-etxean, 20:30ean.

Informazio gehiago:
www.katamalo.org

tzen ari gara, dena ondo egiteko. Jendea harritu egingo dela uste dut, baina onerako. Eta gosez geldituko da; ez kantu hutsak direlako, gauza asko esaten ditugulako baizik. Dagoeneko hitzordu batzuk ditugu, emanaldiak emateko, eta denboraren poderioz, aukera gehiago aterako direla uste dugu. Emanaldia CD-an grabatzea ere izan liteke.

Testua: Itxaso Marina / Argazkia: Aritz Albaizar

GR-280 Uribe Kosta, Zamudio-Zamudio martxa

Arroeta Zamudioko Mendi Taldeak GR-280 Uribe Kosta ibilbidea egin dau orain dala gutxi. GR siglen bidez izendatzen dira ibilbide luzeak. Arroeta taldekoak bost orduan ibili ziran tipi-tapa mendian zehar, eta hurrengo lerrootan martxa horren barri emon deuskue.

Argazkiak: Arroeta Mendia

Ibilbidea Zamudion hasiko dogu. Teknologia-parkera Lezamarako bidean dagoan gasolindegitik sartu, eta eskumako lehenengo sarrera hartu beharko dogu, Agarre baserritik. Sarrerak harkaskarrezko pista bateraino eroango gaitu. Pistatik jarraituz, baso batera sartuko gara eta hori zeharkatu ostean, gurutze batera helduko gara. Bertan GRko marka zuri eta gorriak ikusiko doguz.

Markek Sandike baserriraino eroango gaitue. Asfaltozko bidetik Sandikebarri baserrira ailegatuko gara, eta gurutzean, eskumako bidea hartuko dogu. Zalantzan izanez gero, marka zuri eta gorriei jarraitzea komeni da, ez erratuteko. Markok Arkotza eta Jule baserrietaraino eroango gaitue.

Asfaltoa atzean itxiko dogu eta lurrezko pista sartuko gara. Aldapan gora egin ondoren –aldapa laburra da, baina gogorra be bai-, Gaztelu mendiaren gainera ailegatuko gara (mendi hori Zamudion dago; ez nahastu Gaztelu eta Gaztelumendi). Hona ailegatzeko, ordu eta erdi gitxi gorabehera emongo dogu bidean.



Eskumara jo, eta mendikatetik jarraituz, Gaztelumendi mendiaren gainera (324 m.) abiatuko gara. Ordubete emon beharko dugu, gainera heldu arte.

Indarrak barritu, eta jaitsierari ekingo deusagu. Goikolexeatik Morgara doan errepidea ikusiko dogu. Errepidearen beste aldean dagoen karteletik jarraitzen badogu, Atxikara ailegatuko gara. Bertan Ugaldeko Errotaren ondotik pasatzen dan errepidea hartuko dogu Goikolexearentz.

Errepidea berriro gurutzatuko dogu eta landatatik zehar Loroño Goikora helduko gara. Eskuman dagoan errepidea hartu, eta Artado Iturrira ailegatzeko garanean, ezkerreko lurrezko pistatik abiatuko gara Basabal Andikorantz. Errepidea barriro hartuko dogu, eta Bekoerrotan baserritik pasatuz, Mikel Zarate plazara helduko gara.

Irubide eta Olabide etxeetatik gurutzatu eta Sandike eta Agarre baserrietara eroango gaituen lurrezko pista hartuko dogu. Ibilbidea hasi genuen bidetik itzuliko gara Zamudiora.

"LAIA HOTEL MUSEOA"



Parke teknologikoa

Eraikina 806. Derio (Bizkaia)
Tel. 94 431 76 80
Fax 94 431 76 81
laia@saviat.net
www.saviat.net

Derion kokatuta, berau da hotel ekologiko bakarra energia berriztagarrien sistemei esker.

Hidromasajeaz hornitutako 38 gela ditu. Gainera, euskal gastronomia dastatu ahal izango duzu, antzinako errezetak zein sukaldaritzarik berritzaileena.

Spa zentroak relax zirkuitu hiru eskaintzen ditu: sauna, vaporiuma, jacuzzi eta dutxa inguratzailea.

**Aurreko
galderaren
erantzuna:**
Gazteak
Irabazlea:
Izaskun Enzunza



LEHIAKETA

Asmatu galdera eta bi lagunentzako asteburu batean gau bat pasa Laia Hotel Museon, gela bikoitza, buffet-gosaria eta Spa zirkuitua, barne. Hilabete honetako galdera zera da:

**Korrikaren
zenbatgarren edizioa
beteko da aurtenean?**

Bidali erantzunak, hilaren 15a baino lehenago, telefonoz (944523447), e-mailez (aikor-txori@yahoo.es), edota postaz (**AIKOR!** aldizkaria, Aresti kalea 2, 48016, Zamudio).

(Saria Laiaren eskaintza duzue).

**MULTIPRECIO
RAKEL**

Garraio, jabetza, 40.000 DERIO
Sarekako telefonoa: 635 70 28 35

**MAPFRE
DERIO**

Paketea plaza 2/6
48160 Derio (Bizkaia)
T + 94 454 05 90
F + 94 454 05 90
artara@mapfre.com

LOREGARBI GARBIKETA ZERBITZUAK

Uste-akatsak, urrikorak
Auzokor komandakak
Mantamatu garbi-flakak
Piletoak eta lokakak
Ustezko sarrerako garbiketak
Isantxoak
Zahar biltzaia

Bosque Plaza, 1 - R^a Aldekoa Tel: 94 406 49 92
48160 DERIO (Bizkaia) 656 712 443
loreagarbi@euskalnet.net Fax: 94 406 49 93

**LEIRE BEGOÑA
HEAPAINDEGIA**

UNISEX HEAPAINDEGIA
ESTETIKA
ORDUTEK JARRAITUA
LASER-DEPILAZIOA

Mungialde etorbidea, 20 DERIO
T: 94 451 26 32

JOSTUNAK
JANTZIOA KOPONKETAK

Antes, larus eta era guztietako jantziak konpartzeko bilerak
Ezkelet Herriko ohiko jantziakoa soilpe

Ordutegia: 94 406 49 94
48160 DERIO (Bizkaia)

MAMEN mertzeria

Galko kalea, 6. Derio. 94 454 28 60 / 656 79 38 25

Sukaldaritza

Bakoren bazterra

Loreak gure bidean



*Iñaki Suarez,
sumillerra*

Lagun on batek dio, eta oso ondo esanda, ardoaren inguruko errituaretan argi ikusten duela zelango alde dagoen eguneroko gauza-momentu arrunten (profanoak) eta bizitzaren gauza-momentu berezien artean (sakratuak). Izan ere, antzinako greziarrek statusa handitu

zioten edabe honi, nortasun ikurra eta erritual sozialen ezinbesteko elementua bihurtuz (debate eta sinposioetan ardo edaten zuten, momentu motibagarriak, eztabaida konstruktiboak eta gozamina sortzeko). Eta jaungoiko batekin lotu zuten: Dionisosekin.

Ardo botila bati kortxoa kentzen diogun bakoitzean, bizirik dagoen zerbaiten esentzia zabaltzen dugu. Ez dago hori bezalako beste botilarik, beste urterik, beste jatorririk; bakarra da, momentua berezi bilakatzeko konpartitzen dugun altxor errepikaezina. Ardo lurrari buruz mintzatzen zaigu, eguraldiaz, hazten lagundu dioten eskuetaz; eta horren guztiaren esentzia ematen digu eskuzabal.

Horregatik, atrebentzia barkatzen badidazue, kortxoa atera, zuen kopak bete eta brindisa egingo dut, momentu honetan elkarrekin ibiltzen hasi garen bidea ospatzeko. Lora eta esentzia asko topa ditzagun!

Etxeko sukaldaritza

Indaba gorriak

Osagaiak

(4 lagunentzat):

- 500 g. indaba (beratu barik)
- Porru bat
- Kipula txiki bat
- 2 patata
- 3 piper siku
- 2 txorizo
- 4 urdai zati
- 4 saiheits zati
- Olio apur bat
- Gatza

Prestatzeko era:

Presio-eltze batean indabak sartuko ditugu ur hotzetan. Su bizian izango ditugu, eta ordu laurden batean utziko ditugu irakiten. Ur hotza bota eta berriro jarriko ditugu irakiten. Gauza bera beste bi



*Maite Lekerika,
sukaldaria*

aldiz egingo dugu.

Porrua txikitu eta eltzeraz botako dugu. Zartagin batean kipula erregosi (olio apur bat erabili) eta gehituko dugu. Piper sikuak garbitu eta horiek ere botako ditugu. Azkenik, txorizoak (erdibituta), urdaia, saiheitsak eta patatak gehituko ditugu. Ura nahikoa bota, eta eltzea estaliko dugu. Balbula bueltaka hasten denean, hiru

ordu laurden edukiko dugu sutan. Indabak eltze zabal batean aterako ditugu. Behar izanez gero, gatza eta ura botako ditugu. Saltsa gustura loditu arte, edukiko dugu su ezkitan.

GOMENDIOAK

Amagoia Gezuraga

LIBURUAK

GAZTEAK

Hortzak galtzen zituen kanta-
ria

K. Izagirre

Urtebete itsasargia

M. A. Meabe

Axenario

J. Renard

Albondigaren istorioa

J. Azpeitia

Jirafa lepo-motza

H. Mas

NAGUSIAK

Bazterreko ahotsak

Ana Urkiza

Ezer baino lehen

Arantxa Iturbe

Greta

Jasone Osoro

Sisifo maite minez

Laura Mintegi

MUSIKA



Lorategi hibridoak

Miren Aranburu

Euria

Teresa

Zabalza

Rose

Escargot

Kerobia

Not too

late

Norah

Jones

Kerobia taldea

DENBORA PASA

LETRAZOPA

P	M	A	D	P	A	E	R	A	K	S	A	K
A	U	G	R	B	G	P	T	S	L	H	U	B
X	P	O	A	R	B	A	D	B	R	K	D	S
E	F	T	D	S	I	T	O	I	F	L	M	M
O	Ñ	S	Ñ	F	R	E	S	K	O	A	T	Z
Y	D	B	R	U	H	X	N	E	I	N	I	J
A	E	S	G	L	I	E	L	J	G	P	A	L
O	Z	O	N	A	M	K	U	K	X	A	N	J
Ñ	Y	U	S	T	U	R	I	E	H	R	Y	Ñ
A	N	P	L	R	F	H	Y	X	J	R	T	E
L	T	G	N	Z	K	Z	H	O	U	A	F	O
Ñ	R	M	Ñ	F	I	Y	J	K	G	T	U	X

B	Y	A	F	I	R	Ñ	G	P	B	F	F	J
E	T	X	A	U	H	R	E	P	E	G	E	B
D	E	B	S	R	T	H	A	H	L	I	Y	H
U	D	S	E	G	Ñ	R	J	I	A	O	A	D
R	D	A	T	E	R	R	I	O	Ñ	G	R	K
R	U	O	S	O	U	M	U	J	O	A	R	S
E	T	P	T	Z	F	R	T	P	A	P	E	L
A	R	O	N	Y	X	N	I	S	O	T	G	I
D	X	N	Z	E	M	K	R	E	H	K	U	Z
T	B	U	B	M	D	M	G	I	O	L	K	L
A	Y	F	N	N	Ñ	L	N	K	L	J	M	U
X	Z	X	A	L	A	R	O	P	N	E	T	J

Negua amaitu baino lehen aurki itzazu goiko letrazopan **eguraldi honegaz zerikusirik daben beste 7 berba***. Kontutan hartu Txorierrin esaten dan eran idatzita dauzela.

* "Derioztarren euskara" liburutik jasoak.

Ezkerraldean **AIKOR!** 56. zenbakiaren erantzuna. negua-gaz zerikusirik daben 7 berba

euskal herriko d-generazioa



Agenda

Antzerki eta filmak

Lezama

–*Greban gaude*, Larrukin antzerki taldeak antolatuta. Martxoaren 9an, 20:00etan, Kultur Aretoan.

Ikastaroak

Zamudio

–Sorospen-ikastaroa. Ostiraletan, Arroeta Mendi Taldeak antolatuta.

–Udal ikastaroetan izena emateko epea: martxoaren 23ra arte.

Irteerak

Sondika

–Parisera bidaiari lekua dago oraindik. Izen-ematea: udaletxean.

Zamudio

–Zalama-Balgerri, martxoaren 3an. Arroeta Mendi Taldeak antolatuta.

–Alto Campoo, martxoaren 18an. Arroeta Mendi Taldeak antolatuta.

–*Cyrano de Bergerac* antzezlan ikustera. Martxoaren 30ean, 20:00etan, Arriaga antzokian. Izena emateko azken eguna: martxoaren 26a.

Lezama

–Valderejo, martxoaren 18an. Gailur Mendi Taldeak antolatuta.

Kirola

Sondika

Futbol Areto Txapelketa. Igandeetan, 09:00etatik 13:00etara, Goronda Beko kiroldegian.

Zamudio

–San Jose plater-tiroko saioa. Martxoaren 17an, 10:00etan, Teknologia-parkeko tiro zelaian. Txorierri Ehiza eta Arrantza elkarteak antolatuta.

–Bilbao-Bilbao 07 Nazioarteko Zikloturista Proba, martxoaren 18an. Zamudiotik 10:45etik 11:00etara bitartean igaroko dira.



Musika

Zamudio

–Kamara Koralarren emanaldia, martxoaren 10ean, Sestaon.

–Kamara Koralarren emanaldia, martxoaren 31an, Lekeition.

Bestelakoak

Zamudio

–Emakumearen Nazioarteko Eguna, martxoaren 8a. *Sólo mía* filma, 18:00etan dorretxean; “Genero indarkeria” hitzaldia, 19:30ean eta horren ostean, luncha.

–Aste Santuko kanpamenduan izena emateko epea: martxoaren 15a baino lehenago. Kanpamendua apirilaren 10etik 13ra izango da.

OPTIKA IKUSLAN

Detallurako graduatuak
Kontaktu lekuak
Eguzkitako hornariek
Teheengo markak

Oiz Kalca, 3. floor: 94 452 28 18 ZAMUDIO


TALLERES JUAN ANDRES
AUTOMOBILAREN ELEKTRIZITATEA ETA MEKANIKA
PUNTUAN JARTZEA

Tomelamagall 1nd., 8 - 216 Pab.
Tel.: 94 452 07 09 48170 ZAMUDIO (Bizkaia)

LEANDRO LANDETA


HARAGITEGIA-URDAITEGIA
Oiz Kalca, 1 • Tel. 94 452 00 69 - 48170 ZAMUDIO

HORTZ KLINIKA


Idoia Zubietza
Osasun-entzue & Hortz-esteka
HORTZ-PLANTEAK - OSTODONTZIA-ESTUDIOA
(HARRAK, ZUBI, HIRI, DUK)

10r. Arrieta kalea, 11 1. sol. • 48011 BILBO • Tel. 94 441 61 71
1r. Arrieta kalea, 1 • 48170 ZAMUDIO • Tel. 94 452 13 70


GUEDAN
servicios deportivos, s.a.

ZAMUDIOKO UDAL KIROLDEGIA

Bilbo: Salmer plaza, 5 - Txekidura Eskola, 7. Solaina, 1. Orena - 48011 BILBO
Tel. 94 451 80 30 - Fax: 94 451 82 12
Zamudio: Poliklinika: Telefonoa 94 452 21 20 - Fax: 94 452 30 74


GARAIOLTZA, S.A.
PROMOZIOAK-ERAIKUNTZAK

LEZAMA

ETXEBIZITZAK, MERKATARITZA-LOKALAK ETA GARAJEAK



LEHEN MAILAKO ERAIKUNTZAK; LEHIATE HANDIAK;
ORDAINTZEKO ERRAZTASUN HANDIAK

TF.: 94 455 50 19

Garaioltza auzoa, 128 (behea)
Lezama (Bizkaia)

OSO ALTU EGITEN DUGU HEGAZ

Gure helburua sektore aeronautikoan liderrak izatea da



Gidaritzaren, gure pertsonen inplikazioaren eta hobekuntza jarraikorraren bitartez, berrikuntza eta ingurumenarekiko errespetuarekin batera, Bikaintasuna etengabe bilatuz.



GRUPO

Industria de Turbo Propulsores, S.A.





Erreferentziako

txartela:

Finantza-txartelen

erraztasun

guztiekin eta

gainera...

**Bidaia-
asistentziako
doako aseguria**

abantailak era
guztietako 2.000
establezimendutan.

Deskontuak
mundu osoan
izateko giltza.

Kontsultatu
BBK26 gida,
www.bbk.es
orrian